



ARGIA



ETA-REN BORROKA ARMATUA **AMAIERAREN ZAILTASUNAK**

IMANOL MURUA URIARI ELKARRIZKETA

EUSKAHALDUNTZEA:
KOSMOPALETOARI
ZARTAKO LINGUISTIKOA

XABIER GANTZARAIN
KALOSTRA ARTE
ESKOLAREN ITXIERAZ

BAZTANGO AROZTEGIA
HERRIA ALDA LEZAKEEN
PROIEKTU URBANISTIKOA



BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
FEMINISMOA ETA EUSKALGINTZA: BI BORROKEN
ARTEKO HURBILKETA XUMEA BLA BLA BLA LA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BL
ALDAKETA NAFARROAN BLA BLA BLA BAL
BLA-BLA BLA BLA BL-BL-BL-BLAAA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA **KLIMA ALDAKETA** A
BLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BLA BLA BLABLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
GARAI KONPLIKATUAK EUROPAKO EZKERRENTZAT
BLA BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
LOMCE, HEZKUNTZA HANKAZ GORA BLA BLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLABLA BLA BBLA BLA
BLABLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA LA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA BLA

HAUTATZEN DAKITENENTZAT

9,95€

Eskura ezazu!

943 371545

www.argia.eus/denda - denda@argia.eus

**ARGIaren asteroko harpidedunak
doan jasoko du postaz**



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Estitxu Garai Artetxe
- 20 Bea Salaberri
- 21 Iñaki Murua
Joanes Etxebarria
- 22 Joxe Iriarte *Bikila*



Sabino Cuadra: "Bizitza soziala bizitza politikoa dela onartu eta erabaki ttikienari ere demokrazia dosia bota behar zaio" (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 46 BERTSOAK
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
JESUS AHEDO
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO IRUDIA: JOSEBA LARRATXE

SAKONEAN

- 14 | Sabino Cuadra: "Gizarte mugimenduak dira sistema-aldaketaren giltza" / Sustrai Colina
- 24 | 1936ko Gerrako lubakiak: Errepublikaren urratua agerian / Urko Apaolaza Avila
- 30 | Imanol Murua Uria: "ETaren berri mundura Madrilgo ikuspegitik iristen da" / Lander Arbelaiz Mitxelena
- 34 | Aroztegia. Zementuak desadostauna ekarri du Baztanera / Garazi Zabaleta
- 36 | Ni *palette*? Zu bai kosmopaletoa! / Onintza Irureta Azkune
- 42 | Xabier Gantzarain: "Kalostra ixtea erabakita zeukaten gurekin hitz egiterako" / Kepa Matxain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Asier Arrate, Axier Lopez, Eñaut Agirrebengoa, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Llorente, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048.

Lapurd, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.

Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.





PANORAMA

Mozorroa janztea ez da disfrazatzea

Pirataz, Niko Etxartez edo atez ateko zintzilikarioz disfrazatzean, zein garen ez dugu ezkututzen. Beste era batez agertzen gara. Mozorroa janzteak, aldiz, gu garena alboratzea dakar, ezezagun bilakatzea. Horregatik aurpegia estaltzea edo beltzez margotzea da bizirik dirauten Euskal Herriko eta Europa mendebaldeko inauteri askotako ezaugarrietako bat. Norberaren berezko usaina ezkutatzen duenik ere bada, kirats handiko larruak jantziz edo animalien odolaz bustiz, adibidez. Inauteriak bizitzeko era hori oso presente duen herrietako bat da Ituren.

Argazkia: Gari Garaialde (Bostok Photo)

“Zergatik neskei zuzendutako mozorro batzuk dirudite gizonezko batzuen fantasia sexualetik aterata daudela?”

Eneko Fernandez
(Hasihezihaziberria blogean)

argia.eus-en ikusgai



Ezkerreko eraldaketa feminismotik

Jakin aldizkariko zuzendari Lorea Agirre eta Jule Goikoe-txea politologoaren hitzaldia.



“Gero eta emakume gehiago datoz kontzertuetara”

Natalia Garmendia Humus taldeko musikaria, Sorginak bideo-sortaren azken saioan.



GASTEIZHOY.COM

Garoa berriz martxan jartzeko prozesua, aurrera

Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren (CSN) plenoak Garoña berriz irekitzeko prozesuan beste urrats bat eman du. Espainiako aurreko legegintzaldiko ordezkariak duen plenoak –PPk du gehiengoa bertan– zentrala berriz martxan jarri eta bere bizitza 60 urtera luzatzeko txosten teknikoei baiezkua eman die.

Hala, CSNk entzungor egin dio Espainiako Kongresuko alderdi guztiek –PPk izan ezik– prozesua gelditzeko egindako eskariari, Rajoyren Gobernuak jardunean badago ere.

Azken erabakia 2016ko bigarren seihilekoan har dezake Gobernuak, orduan

helaraziko baitio kontseiluak behin betiko txostena Espainiako Industria Ministerioari.

Ordurako, Espainian gobernu berria osatuta egotea espero da. Gobernu berri horren iritzia Garoña berriz irekitzearen kontrakoa bada, CSNk orain hartutako erabakiarekin Endesa eta Iberdrola enpresek –zentralaren jabe den Nuclenorrek, alegia– kalte-ordain handiak eskatu ditzakete.

Santa Maria de Garoña Burgosen kokaturik dago, Euskal Herriko mugatik oso gertu –5 kilometro eskasera– eta Espainiako Estatuko zentral nuklearrik zaharrena da, 1971n eraikia. 2012tik geldirik badago ere, ez dago itxita, eta 2031 arte funtzionatzeko eskaera egina du Nuclenorrek.

“Frantsesa eta euskara maila berean jarriko dituen legea exijitzen jarraituko dugu”

SEBASTIEN CASTET, EUSKAL KONFEDERAZIOKO BOZERAMAILEA

Euskara lege-estatus gabe gelditu da Ipar Euskal Herrian, boto bakarrarengatik. Frantziako Asanblea Nazionalak atzera bota du, boto baten aldeagatik, Frantziako Estatuko hizkuntza gutxituak bultzatzeko proposamena. Castetek salatu du eskuinak eta ezkerrek modu alderdikoan darabiltela hizkuntza minorizatuaren auzia. Frantziako Estatuan, 75 hizkuntza gutxitu autoktono daude. **2016-02-07**



Merkataritza askeko akordioen ordaina

- ISDS izeneko auzitegi berezien bitartez, konpainia batek ordaina eska diezaioke gobernu bati, hark onartutako lege edo arauen batek kalte egiten diola argudiatuta.
- Europar Batasuna AEBekin negoziatzen ari den TTIP hitzarmenak era horretako auzitegiatarantz jotzeko aukera aurreikusten du.
- Dagoeneko indarrean dauden nazioarteko beste akordio batzuen bidez, dozenaka kasu izan dira Europan azken urteetan.

ISDS: 127 KASU 20 ESTATUREN AURKA

1994-2014

4.700 milioi euroko eskaria Alemaniari

Energia nuklearra gero eta gutxiago erabiltzeko erabakiagatik

ISDS bidezko eskari gehien duen estatua
Txekiar Errepublika
26 eskari

Ezarritako zigorrik handiena
Eslovakia
553 milioi euro

Akordio baten ondorioz egindako ordainketa handiena
Poloniak Euren konpainiari
2.000 milioi euro

Kasuen erdian (127tik 63)
baizik ez da ezaguna auziaren azken emaitza

Iturria: Friends of the Earth Europa

- 127 kasu ezagutzen dira 1994-2014 epealdian, baina baliteke gehiago izatea, ISDSen inguruko gardentasun eza dela eta.
- Ezagutzen diren kasuen %76 EBko kide berrien aurkakoak izan dira.
- Kasuen %60 ingurumenarekin zerikusia duten sektoreei dagozkie (erregai fosilak, meatzaritza, energia nuklearra, basoak, nekazaritza...).



Kartzeletan ikuspegi feminista txertatzea aldarrikatu zuen Angela Davis ekintzaile afroamerikarrak.

MALEN ALDALUR AZPILLAGA

Angela Davis: "Justizia modu berriak ikusarazi behar ditugu"

Malen Aldalur Azpillaga

@malenaldalur

Angela Davisek AEBetatik Euskal Herriko bidaia egin zuen joan den aste-buruan. Gite-Ipes-ek eta Ipar Hegoak gonbidatuta hitzaldia, mintegia eta elkarrizketa eskaini zituen ekintzaile afroamerikar feminista eta komunistak. Otsailaren 5ean Bilbon eman zuen hitzaldia, "Kartzela kalera! Emakumea eta kartzela" jardunaldien baitan.

Emakumeek gainerako presoek jasaten duten errepresioaz gain tratatu txarrek eta sexu erasoak pairatu behar dituztela azaldu zuen: "Gobernuek sexu jazarpenak egiten dituzte". Estatua subjektu bihurtu eta erasotzaile papera esleitzea garrantzitsua dela dio, "harremanetan daude biolentzia estatala eta intimoa, pertsonala eta publikoa". Kartzeletan perspektiba feminista txertatzeak emakumeen bizipenak ulertzera garamatzala azpimarratu zuen ekintzaileak: "Biolentziaren kapak eransten ez baditugu, zail izango da askatasunerako gakoak bilatzen".

AEBek sortu zituzten kartzelak demokrazia burgesaren oinarritzko instituzio bezala; pertsonen eskubideak kentzean datza zigorrak, azaldu zuen. Dena den, zigor demokratiko batean, eskubideak aitortuak izan behar dira

ukatuak izan ahal izateko, eta hori eliten demokrazia batean bakarrik gertatzen da.

Davisek azaldu zuen, pertsonak damutzeko eta hobetzeko sortu zirela kartzelak, baina emakumeei ez zitzaion horretarako aukerarik ematen, "biologiaren" aurka joateak ez baitzuen atzera bueltarik: "Emakumei zerbitzari hobeak izaten erakusten zieten kartzeletan eta ez pertsona hobeak izaten".

Bost pertsonatik bat dago AEBetan kontrol korrekzionalarekin. Gehienak atzerritarak dira, eta arrazak guztiz baldintzatzen du kartzelaratzeko prozesua: "Bere eredu mundu osora esportatzen duen kartzela da AEB". Ekintzaile afroamerikarrak badaki ez dagoela konponbide errazik, baina uste du presoak askatze hutsetik haratago joatea garrantzitsua dela: "Abolizioaren aldeko ikuspuntuek konponbideak eskaintzen dizkigute eta ez uneko arazoetatik ihesteko soluzioak soilik". Azpimarratu zuen, planteamendu horrek, ezinbestean, antikapitalista, antiarrazista eta feminista izan behar duela: "Justizia modu berriak ikusarazi behar ditugu, biolentzia eta mina sortu ordez, gizarte enpatiko eta biolentzia gutxiagokoa eraikitzeko. Atzean utzi behar ditugu ezagutzen ditugun kartzela formatuak eta indar polizialak".

EKONOMIAREN TALAIAN

Enplegu eskubideak



Juan Mari Arregi

Badaude marrazkilariak kapaz direnak salaketa sozial eta politikoa sakonena egiteko irudi edo esaldi bakarrekin. Joan den astean *El Roto*-k, Madrilgo egunkari garrantzitsu bateko marrazkilariak, pertsona baten irudia argitaratu zuen, haserre eta esanez: "Enplegua sortu! Zenbat eskubide kentzen dizkigute zure izenean!". Gobernuak mingaina dantzan aritzen dira enplegua sortzea premiazkoa dela esanez, eta sinetsarazi nahi digute euren lan erreformekin hori lortzen ari direla.

Bai, baina zer enpleguz ari gara eta zeinen eskubideen kontura? 2015ean inoiz baino kontratu prekario, behin-behineko eta aldi bateko gehiago egin ziren Espainiako Estatuan, datu ofizialen arabera. Behin-behinekoek errekorra ondu zuten eta 17,07 milioira iritsi ziren, ordukoak 6,4 milioi izan ziren –horietatik 5,7 milioi behin-behinekoak–. Kontratuen batez besteko iraupena 2006an 79 eguneko zen, bada 2015ean 53,4 egunera jaitsi da. Krisiaren aurretik, industriako behin-behineko kontratu batek sei hilabete irauten zuen batez beste; orain ia ez da iristen bi hilabetera. Erran nahi baita, duela zortzi urte lantegi batean lanpostu ez-estruktural bat betetzeko urtean bi kontratu sinatzen ziren, orain sei behar dira.

Gazteek ezin diote bizitza-proiektu bati ekin, harremanak egonkortu, etxebizitza erosi edo alokatu. Kideren bat langabezia duten familiek edo soldata baxua dutenek ezin diote hipotekari aurre egin, eta ez dira gutxi etxegabetuak. Espainiako Estatuko ia herena pobrezia edo bazterkeria arriskuan dago –etxeen batez besteko 663 euroko diru-sarrerara baino %60 gutxiago dute–. Hori da egungo enplegua: prekarioa. Eta hor daude bere izenean kendu dizkiguten eskubideak.



DANI BLANCO

Etxeko langileen hiru-laurdenak 60 ordutik gorako lanaldiak ditu

PREKARIETATEA. Etxeko Langileen Elkartek 2015eko datuak argitaratu ditu. Etxeko langileen %90,87 zaintzeko kontratatu dituzte, horietatik %97,41 zaharrak zaintzeko; langileen %78,85ak as- tean 60 ordu baino gehiago egiten ditu lan, herenak ez du ordu bat bera ere libre astegunetan, eta %23,56k baino ez du hartzen 36 ordu jarraian atsedena, legeak agintzen duen moduan; %85ak ez du kobratzen gutxieneko soldataren proportzioan; Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden langileen kopuruak gora egin du, bai etxe barruan baita etxetik kanpo lana egiten duten langileen kasuan ere; %13,94k ez du paperik –horien artean badira astean 81 ordutik gora lan egiten dutenak–.

Berretsi dute erraustegiak minbizia ugaritzen duela

Zero Zabor

@zero_zabor

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak Gipuzkoako 500 bat mediku eta osasungintzako langile biltzen ditu. Txostena aurkeztu berri dute, azken urteotan gaiaz egindako azterketen ondorioak hizpide.

Minbizi eragile

Hondakinak erraus- teak, ingurumenean bakarrik ez, giza osasunean ondorio kaltegarriak dituela frogatu dute azken urteotako ikerketek: minbiziak eta beste- lako gaitzak ugaritzen dituela ondorioztatu dute.

Alternatibak

Ikerketa Taldeak es- katu du erraustegia ez bestelako kudeaketa alternatiboak azter daitezela. “Irtenbi- de osasuntsuenen alde egiteko unea da. Garaiz gaude gure hondakinen kudea- keta arduratsu bat egiteko”.

Manifestuaren balioa

Kalteen berri 2002an eman zuten, 500 profesionalak sinatu- tako manifestuaren bidez. Argitaratu zen eguneko balio bera duela adierazi dute orain, azken urteetan burututako ikerketen ondorioek indarturik.

LAN ISTRIPUAK



267

lan istripu izan ziren eguneko 2015ean, Hego Euskal Herrian. LABek aurkezturiko txostenaren arabera, 2014ko datuekin alderatuta, lan istripuak %8,7 hazi dira.

12

gaixotasun antzeman ziren eguneko, lanak eraginda, eta sei egunean behin langile bat hil zen.



KONTXU ODRIOZOLA HIL DA

Kontxu Odriozola aktore azpeltiarra 70 urterekin hil da, minbiziaren ondorioz. Zineman eta antzerkian aritua, *Goenkale* telesailan Maria Luisaren paperean egin zen ezagun. 2008an Euskal Aktoreen Batasunak sarria eman zion.



OSASUN ARRETA EUSKARAZ IZATEA ALDARRI

Osakidetzak gaixoari bidaltzen dion osasunari buruzko informazioa gaztelaniaz jasotzen da gaur egun. Informazio hori euskaraz ere izan dadin kanpaina abiaraziko dute Oñatin otsailaren 17an. Eskara ahalik eta gehien batzea da asmoa.



ASKAPENAKO BOST KIDEAK ABSOLBITU DITUZTE

Espainiako Auzitegi Nazionalak Askapenako bost auzipetuak absolbitu ditu. Epaiketan ez dute frogarik aurkitu Askapenaren eta bost kide hauen jarduna ETArekin lotzeko.

Aukera galdua



Xabier Letona

@xletona

IZAN ALA EZ IZAN. Eman balore politikoa ala ez eman. Eskubideak bete ala ez bete. Aldatu ala ez aldatu. Eta ez aldatzearen aldeko hautua egin du Nafarroako Gobernuak; euskaldunek erdal hiztunek baino eskubide gutxiago izan dezaten erabaki du. Gogorra eta latza, baina hala da. Euskal hiztunen komunitateak kolpe latza hartu du Hezkuntza Sailak erabaki duen Enplegu Publikorako Eskaintzarekin.

Bi gai nagusi zeuden erabakitzeko. Bata, EPEaren plaza kopurua. José Luis Mendozaren Hezkuntza Sailak azarotik defendatu izan du 2016rako 334 plaza aterako zirela, 228 euskaraz eta 92 gaztelaniaz. Azkenean, Madrilgo Gobernuaren helegitearen ondorioz, 200 plaza bakarrik aterako ditu, horietatik 108 euskaraz eta 92 gaztelaniaz. Banatu daitezke plazak beste era batera, segurtasun juridikoak euskarazko 120 plazetan bakarrik eragin ez dezan, baina bego: Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak erabaki arte, neurri zentzuzkoa izan daiteke eta onargarria. Autogobernuaren defentsa oinarri hartuta aurrera ere egin zitekeen, baina horrekin bestelako eztabaida batean sartuko ginateke.

Egin daitezke aldaketak Sinboloen Legean, esparru sozialean, zerga erreforma, Opuseko instituzioei ematen zaien faborezko tratuan... baina euskarara iristean, ezin da. Etsigarria

Onargarria ez dena da irakasleen zerrenda bakarrarekin egin duena. Suhiltzaileak, medikuak, erizainak eta funtzio publikoko edozein esparru meritua eta gaitasunen arabera zerrenda bakarretan oinarritzen dira. Ez Nafarroan bakarrik, Espainiako Estatuko erkidego guztietan da hala.

Nafarroako hezkuntzan ez, hemen bi zerrenda dira, bata klaseak euskaraz ematea hautatu behar duen irakasleentzat eta bestea gaztelaniaz ematearen aldeko hautua egiten dutenentzat. Euskalduna behartzen dute bakarrik plaza batzuetarako aukera izatera, berak osotasunerako gaitasuna duenean. UPNk eta PSNk jarritako sistema da, haien arabera bestela euskaldunek abantaila dutelako gaztelaniaz bakarrik dakitenean aurrean. Gehiago dakizula? Bada, tori eskubide gutxiago. AFAPNA sindikatu nabarristak ere argi dio: "Euskarazko oposiziogileek aukera lukete gaztelaniazko eta euskarazko plazak lortzeko, eta gaztelaniazko oposiziogileek ez".

NAFARROAKO EUSKALDUNEN aspaldi-ko aldarrikapena da hori eta pentsatzen zen oraingoan lortuko zela. Geroa Bai eta EH Bildu horren aldekoak ziren, eta Ahal Duguk eta Ezkerrak ere euskararen eskubide berdintasunaren aldeko jarraitzaileak. Teorian. Teorian diot, gero errealitatean argi ikusi baita beren baitako hainbat sektorek, CCOOk, UPNk, PSNk eta abarren jarrerak haiengan ere eragin handia duela. Gainera, José Luis Mendozak berak zerrenda bakarraren aldeko jarrera argia erakutsi zuen Euskara Kultur Elkargoan jardun zuenean.

Aukera oso egokia zen: Espainiako Gobernuak -ohi legez- modu txarrean blokeatu duela plaza kopuru bat, Gobernuaren nahia baldintzatuz? Ados, baina egin

aurrera beste esparruan, zerrenda bakarraren asmoan. Bada ez bata, ez bestea. Zer irudi geratzen da? Gobernuak ez duela indarrik berak sinesten duena egiteko, bere baitan gutxiengo duen indar batek -Ezkerrak- ziria sartu duela eta CCOO, UPN, PSN eta *Diario de Navarra*ren presioa oso eraginkorra dela.

BADAKIGU BOTERETSUAK DIRELA, inozoa litzateke hori aintzat ez hartzea, baina aldaketaren gobernuaren desafioa horixe da, haiek nahi ez duten beste hainbat alorretan aldaketak eragitea. Egin daitezke aldaketak Sinboloen Legean, esparru sozialean neurri ugari onartu ditu jada Gobernuak, zerga erreforma, Opuseko instituzioei ematen zaien faborezko tratuen aurkako neurriak... baina euskarara iristean, ezin da. Etsigarria.

Berak onartua duen bezala, EPEaren gaiarekin gaizki hasi zen Hezkuntza Saila, eta gaizki bukatu du. Pedagogia falta leporatu zitzaion hasieran, eta berak onartu, eta berdin egin du amaieran, oraingoz bederen ez baitie azaldu euskaldunei zergatik ezin den abian jarri zerrenda bakarra.

Ekonomiak baldintzatuko ditu gobernuaren neurri asko, eta ahal dena egin beharko da, borondate handienarekin eta pedagogia askorekin. Baina hainbat neurri arde edo iso dira, eta zerrenda bakarrarena zen horietakoa. Aukera galdua, ahuldade irudia, etsipena eta amorrua sektore euskaltzaleetan, horiek dira EPEaren kapitulu honek utzitako ondorio nagusiak.

Gobernuan eta berau sostengatzen duten sektore politiko eta sozialetan ere zauriak utziko ditu erabakiak; topatu beharko dira bideak zorna ez daitezten, alternatibak ez baitu bestelako aukerarik uzten ■

👉 NOLA FABRIKATU KANPAINA INSTITUZIONAL BAT : 👉

1-ZAKUA SOS publikoaz ongi bete.



2-aipu literarioren BAT gehitu.




3-Korapiloak egin



4-Moztu



5-HORRATX !



mondejuaren beste
"MUTURRAZ ZER ?

BOTA!
ZEZER, BURURATUKO
ZAIKU HURRENGO
<KANPAINA>ROKO !



Greziak ezin ditu gelditu Europarantz datozen beste milioi bat iheslari



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Europar asko kexu diren arren dagoeneko etorkin gehiegi hartu dituztelako etxean, 2016an ohartuko dira errefuxiatuen krisia hasi baizik ez dela egin. Kalkulurik kontserbadoreenetan milioi bat gehiago iritsiko dira aurren, funtsean Ekialde Hurbiletik. Krisi ekonomikoarekin batera gertatu delarik, Europaren arkitektura politikoa kolokan jarri du infernutik ihesi bizimodu bila iritsitako jendeon etorrerak.



Europa ez dago mundu mailako erre-fuxiatuen krisiaren abangoardian, idatzi du *Foreign Policy* aldizkarian Christian Caryl: "Hedabideetako kronika eta irudietan erakusten zaizkigulako jendeak Hungariako soroetan barrena eta leporaino betetako itsasontzietan iristen Mediterraneoko kostaldera, uste izan dugu gauzak horrela direla. Baina errealtatea oso bestelakoa da planeta mailan. Datuek erakusten dutenez, lekuz aldatutako jende gehiena bizi da zer eskainirik ez daukaten herrialde behar-tuetan; ez du aldatzeko itxurarik eta etorkizunean kalte handiak eragingo ditu honek".

Jordaniak, esaterako, ia 700.000 erre-fuxiatu dauzka bere kanpaleketan, askotxo ahalmen ekonomiko gutxiko herrialdearen 6,6 milioi biztanleentzako. Caryl oroitzen du hain aspaldikoa ez den adibide historiko bat, alegia Pakistan hasi zela egonkortasuna galtzen 1980ko hamarkadan Afganistandik milioika iheslari iritsi zitzaizkionean. Esan nahi baita, Libano, Turkia, Jordania eta enparauetako egonkortasun politiko eta soziala ez dituela onik utziko uholdeak.

Baina europarrak ez ditu horrek kezkatzen, Danimarka edo Holandako herrietarri ez aipa Jordania estuago dabilzanik. Europako herrietarrek sentitzen dute bere bizimodu dagoeneko aski aldatu dietela etorkin berriek, berdin da beren inguruetan ugari ez badira ere: telebistan ikusi dituzte hurbiletik. Aski dituzte orain artekoak, dio-

te... ohartu gabe uhin gehiago datozkiela atarira.

Ez da gehiago paradisuak Europar. Danimarkak eta Suitzak bitxiak eta dirua kenduko dizkie iheslariari. Alemaniak berdin. Norvegiak atzera Errusiara bidaltzen ditu siriarrak. Suedia, Holanda, zer esanik ez Hungaria edo komunista izandako herrialdeak... Askok ukitu behar izan du gizatasunak herritarren artean, politikariek hauteskondeen emaitzei begira horrelakoak erabakitzen dituztenerako.

2016ko udaberritik aurrera uholde berria prebenitzeko ahaleginean, Europar Batasunako gobernuak ugaritzen dituzte proposamenak. Alanbre hesi gehiago eraiki. Fronterak itxi. Soberan diren iheslariak sorterrira deportatu. Greziari mugak zaintzen laguntzera militar gehiago bidali. Turkiari ordaindu errefuxiatuak bere lurrian luzaroago eduki ditzan.

Turkia, Grezia eta Alemaniak protagonismo berezia daukate etorkin olatu erraldoiaren kudeaketan, Paul Mason kazetari ingelesak azaldu duenez "*Europe's refugee story has hardly begun*" (Europako errefuxiatuen istorioa hasi besterik ez da egin) kronikan.

Channel 4 telebista publikoko kazetari famatuaren ustean Alemania erabaki zailen aurrean dago: "Asilo bila datozenak hartu ahal izateko prest bazauden Estatuaren aurrekontuetan defizita onartzeko, nola esplikatzen Angela Merkel murrizketa basatiek zantatu di-

tuzten herritarrei dirurik ez zenezak azpiegitura eta beste inbertsioetarako?".

Egia da Alemaniara jo dutela iheslari gehienek, iaz milioi bat inguru. Herri eta hiri askotako bizimodu aldatu du horiek aterpetu beharrik: harrerarako txoko probisonalak, etxebizitzak, elikatu, hizkuntza irakatsi, umeak eskolaratu, helduei lana bilatu ... Adibidez, ARTE telebista franko-alemanak otsailaren 2an erakutsi du hori nola egiten duten Sasbachwalden herrian, 2.400 biztanleko udalerrian 700 errefuxiatu sartuta. Gurean famatu egin den Baigorriren kasuak -zientia erdi, kopuru handia hemengoentzat- hutsa dirudi Sasbachwaldenen aldean.

Koloniako eraso sexistek harrotu zituzten hautsak, baina hori baino askoz gehiago da, II. Mundu Gerratik Europar ezagutu duen masa mugimendu handienak Alemaniako gizartea eta ekonomia astindu ditu. Iheslarien aterpetzearen inguruko negozioak berotu ere bai: kontainer gisako etxe probisonalak saltzen dituztenak eta segurtasun konpainiak zorioneko daude, aspaldiko negozioirik borobilena egokituta.

Politika versus bihotz oneko jendeak

Etorkin uhina Turkian barrena dator-kio Europari, eta Turkia atzeraldi politiko orokor batean murgilduta dago, Paul Masonek *moral implosion* definitu duen prozesuan. Recep Tayyip Erdoganek Kurdistango eskualdea gerra eremu bihurtu ditu. Cumhuriyet aldizkari



2015eko urrian egina da Catholic News Service hedabideak eskainitako argazki hau: Greziako Lesbos uhartera txalupa pneumatikoz beste iheslariekin batera iritsi den neskato siriarrari lehorreratzen laguntzen dio boluntario batek. Kanpaleku sorta batean ari dira lanean Greziakoez gain mundu osoetik etorritako bolondresak, saiatuz itsasoz datozeinei laguntzen, batzuk uretatik ateraz, beste guztiak ahal den moduan aterpetuz. Turkia itsasoz 15 kilometrora dauka Lesbos.

bi kazetari bizitza osorako espetxera kondenatu nahi ditu, ikertu ondoren argitaratu dutelako Ankarako agintariak Estatu Islamiarra armaz hornitu dutela.

“Ez da epaile bitxi baten erabakia –dio Masonek– Erdoganek berak eskatu du 30 urteko zigorra. Eta Erdoganen Turkiak oraindik nahi du Europar Batasunean sartzea, OTANen bazkide izaten segitzen du eta gaurdaino Bruselatik inork ez dio hitz bat esan”.

Batetik Europar Batasuna gero eta eskuineratuagoa, Turkia bestetik, ze-poan harrapatuta daukate Grezia. Diplomatikoki masakratua izateko zorian. Kontrola ezinezko itsas hegi eder bezain konplikatu baten jabe izanik, Bruselatik ultimatuma ere bidali zaio, hilabete gutxitan lortzen ez badu Turkiatik datorren iturria butxatzen Schengen itunetik kanporatuko dutela. Greziarrei iseka

egiten hasita, badira proposatu dutenak Grezia isolatzeko burdin hesi berri bat eraikitzea... Europar Batasunakoa ez den Mazedoniako aldetik!

Esku batean akuilua eta bestean azenarioa, diplomatiko alemanek filtratu dute Merkel prest legokeela Grezia saritzeko iheslariak geldiarazteko ahalegina: 400.000 errefuxiatu Greziako kanpalekuan preso edukitzearen truke, greziarren zorra kitatzea.

*Financial Times*en Gideon Rachmanek zehatzago aitortu du plana: “Eredua izan litezke II. Mundu Gerra ostean atzeriratuentzako eraikitako kanpamentuak. (...) Akordioaren hari nagusiak sinpleak lirateke. Greziak onartzen du Iparraldeko frontera zigilatzea Europar Batasunaren laguntzarekin, horrela blokatuz Europako Iparraldera datorren jende etorrera. Ordainetan, Alemaniak

onartzen du Greziaren zorraren parte handi bat barkatzea eta Greziari laguntza berezia ematea iheslarien krisia kudeatu ahal izan dezan”.

2008ko krisi ekonomiko erraldoiak, horrela, jauzi berri bat ezagutuko luke Greziarentzako: ekonomia suntsitu dizugu, gizartearen oreka eraitsi, arnasa ere ukatu, baina orain kontratatuko zaitugu atzeritarren poliziatzat.

Politikakerietatik at, zorionez, jendea geratzen da, Paul Masonentzat: “Isilik eta erretoikaririk gabe, errefuxiatuei laguntzeko mugen gainetik sekula ikusi den elkartasun mugimendu handiena piztu da. Elizak, GKEak, udalak, zerbitzu sozialak, gehi agenda handietatik at bizi diren jende korrienteak... horiek guztiak ari dira pertsonak salbatzen, jana, edana eta arropa ematen, eta baita etxean bezala senti daitezen ahalegintzen ere”. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Sabino Cuadra, Amaiurko diputatu ohia

«Gizarte mugimenduak dira sistema-aldaketaren giltza»

Greba orokor batean, bere legebiltzarkide agiria agerian zuela poliziak egurtu eta *Financial Times*-en portadan esnatu zen. Handik gutxira, Kongresuko pulpituaren Espainiako Konstituzioaren orriak erauzten zituela egin nuen amets.



Sustrai Colina

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zu ere izan zinen haurra?

Okina, ofizialista eta komertziantea nuen aita. Abertzalea. Ama berriz modista. Zaldibarrera ezkonduko amamari etxean Batzokia atzeman ziotenez, ziztuan mudatu behar izan zuen Amurriora, alargun eta bi alabaxorekin. Horregatik, gutxi eta azaletik hitz egiten zen politikaz gurean. Gainera, Amurrio ez zen bereziki herri sutsua. Langileen semeek eta baserritarren osatzen zuten gure koadrila. Etorकिन ere bagenituen tartean. Jabetzen ginen gerra zibileko giro errepresaliatuetatik hartu zutela lur gurean. Komentario solte horiek josteko haria falta genuen, ordea. Esaterako, 1968ko maiatzak Madrilen harrapatu ninduen baina ez nion aparteko arretarik jarri. Ez zeukan nire orduko bizimoduarekin harreman zuzenik. FLPkoen [Frente de Liberación Popular] bidez, alta, gertuagoko bazka iristen zitzaigun, mobilizazio eztanda etengabe bat zen kalea, haize berriak igartzen ziren...

Komunista zinen, ordurako?

Bai, orduko sozialismoarekin oso kritikoa zen korrante batekoa. Kasta burokratikoak iraultza bereganatu zuela iruditzen zitzaidan, adierazpen eta bide iraultzaileak itotzen ari zirela. Ikuspegi ezkertiar eta soziala nazio ikuspegiaren parte dira niretzat. Ez da kasualitatea

etsipenezko ilunaldi politikoetan eredu historikoei heltzea jendeak. Che Guevara edo Rosa Luxemburgo erreferente dira oraindik, Vietnameko eta Kubako iraultzek komunismoaz haragoko eragina dute gure bizitzetan. Horregatik dut nire burua orduko ideien semetzat. Adinak hiru-lau kontzeptutan gotortzera eramanez banau ere, demokrazia sozialista dago printzipio horien gune-gunean. Errotu dadila demokrazia harreman pertsonaletan, eragin dezala esker txarreko etxeko lanen banaketan, zabaldu dadila koadrilako gizon eta emakumeen arteko harremanetan, jarri dezala auzoa dantzan, langileek agindu dezatela fabriketan eta ez kapitalak. Oinarri zabal eta altuera ttikiko piramidea dakar demokrazia sozialistak, ez egungo jendarate bertikal eta hierarkizatua.

Espainiako Diputatuen Kongresua da horren isla?

Espainiako Kongresua hipokresia ikur goren da. Bertako gai ordena ez du gobernuak erabakitzen, are gutxiago hiritarrek. Bruselaren, Troikaren eta Espainiako botere faktikoen esku dago dena. Lan erreformak, murrizketak, Mozal legea, kode penalaren erreforma, estatutik gabeko nazioen autodeterminazio eskubideari eman beharreko erantzuna... Parlamentutik kanpoko

botereek erabakiarazten dute dena. Oso indar atzerakoiak dira. Pentsa, ez daude soilik erabakitze eskubidearen aurka, kontsulta eskubidearen kontra baizik! Indar horien hutsa lepoan sentitzeak nintzena baino independentistagoa egin nau. Horregatik diot behetik gorako demokrazia egikaritzea dela itxitura itogarri horretatik askatzeko modu bakarra. Abenduko hauteskunde kanpaina, alta, erabat telebisiboa izan da. Jendearen parte-hartzea sustatu beharrean, boto-emaileak pantaila aurrean iltzatzea zuen helburu. Bortitza bezain mingarria zait jendea eta jendartearen kontsumo objektutzat hartzea. Erakuslehoan dagoena kontsumitzera mugatzen da hiritarren parte-hartzea?

Orain dena da likidoa, baita bozka ere.

Ezgonkortasun politikoa da azken urteotako ezaugarri nagusietako bat. Katalunian, adibidez, egun batetik bestera aldatzen da egoera. Horrek agenda aldatzen du, alderdien estrategia, liderren posizionamendua... Denbora bat darabagu ezgonkortasun politiko horretan igeri, mobilizazio handiz blai, hil ala biziko hauteskunde zurrumbiloan harrapatuta, eta botere faktikoetatik bideratutako alderdi berrien sorrerak saltsa loditu baino ez du egin. Bozka likidoarena ez da ez ona ez txarra, ez da paralisi



Sabino Cuadra

1949, Amurrio

Aspalditik Iruñean finkatua. Abokatua, sindikalista, eta oraintsu arte Amaiurreko legebiltzarkidea Espainiako kongresuan (2011-2015). Ezker abertzaleko hainbat taldetako kide, orotariko gizarte mugimenduetako partaide, *Arrojado a los leones* liburuaren egile ere bada.

sozialaren sinonimo, aro politiko nahasi baten ispilu baizik. Gainera, orain lau urte PP bezala, programa faltsu eta iruzurti batekin aurkeztuta ez da harri-garria hondarrezko gazteluak eraistea. Oraindik lehen indarra direla? Galduz irabazi dute. Legebiltzarra edukirik gabeko ontzi huts bat izateak izugarri laguntzen die horretan.

Ontzi huts hori herritarrengandik geroz eta urrutiago dago?

Bien artean amildegi bat ez, ozeano bat dago. Espainiako kongresua ez da demokraziaren totema, itxurakeriaren tenplua baizik. Instituzionalki ez da herritarrekiko zubirik eraikitzen, bertan erabiltzen diren lengoia, janzkera eta formek ez daukate kalekoekin zerikusirik, ez dago parte-hartze biderik, aditu bat batzorde batera deitzen dutenean ez da bere iritzia aintzat hartzeko euren burua zurtzeko baizik. Sistemak dena hipnotizatuta dauka. Hala, legebiltzarkideen bi herenek lau urtez inolako hitz-hartzerik egin ez izana lotsagarria zait. Alderdi diziplinaren arabera bozkatzeta eta idatzizko pare bat galdera xalo egitea da legebiltzarkide baten lana? Ez harritu gero bozik ez dagoen plenotan %20ko asistentzia baizik ez badago. Iruñean, kalera atera eta jendeak bizilagunaren edo koadrilakoen arazoez hitz egiten dit, langabezia dagoela bat, hilabete amaierara larri iristen dela bestea, dibortziatu dela ez dakit nor, etxea kendu behar diotela beste hari. Kongresuan ez dago horrelakorik.

Politika egiteko beste modu bat eskatzen du jendeak?

Legebiltzarrean kaleko jendea egon zitekeela erakutsi nahi izan dugu, kaleko kezkei parlamentuko pulpitutik oihartzuna ematen saiatu gara, formaz, edukiz, hizkeraz zein janzkeraz gertukoak, ulergarriak eta zuzenak izaten. Kongresuko hormak ez daude ohituta ezker sozial bat, ezker abertzale bat, aterpetzera. Hala, orain Podemosek hitzetik hortzera darabilen legebiltzarkideen soldatei topea jartzeko proposamen berbera egin genuen 2012ko otsailean, legebiltzarkideen pentsio funts berezien gisako pribilegio zentzugabeak eraisten tematu gara. Ez da kasualitatea legebiltzarreko hedabideen artean buruturiko azken inkestan gu izatea ezkertiarrenak, bai sozialki, bai nazio ikuspegiari dagokionez.



“Iruñean, kalera atera eta jendeak bizilagunaren edo koadrilakoen arazoez hitz egiten dit, langabezia dagoela bat, hilabete amaierara larri iristen dela bestea... Kongresuan ez dago horrelakorik”

Inkestak inkesta, hauteskundeek kongresutik kanpo utzi zaituzte.

Ez dugu asmatu estatu mailako hauteskunde hauek gure herrian kokatzen. Ez dugu jakin testuinguru nahasi horretan gure burua egoki posizionatzen. Idien aurretik jarri dugu gurdia. Erabakitze eskubidea izan da gure kanpainako ardatz nagusia eta ez dugu jakin hemengo arazo sozio-politikoei behar besteko argia ematen, azken lau urteetako estatu politikek gurean izan dituzten ondorio negargarriak behar beste azpimarratzen. Inbutu bat bezala planteatu dugu


erabakitze eskubidea, gure buruak gure mami politiko guztia bertatik pasatzera behartuz. Azken lau urteetako estatu politikari emandako erantzuna izan behar zuen erabakitze eskubideak, ez estatu politika horren ondorio. Madrilerazergatik eta zertara gindoazen esatea falta izan zaigu, ezkerreko talde independentista batek Madrilen duen funtzioa definitu eta zedarritzea. PPren zapalkuntzatik dena posible izan zitekeen agertoki batera igarotzeko aukera zegoela jakinda, ezinbestekoa zen funtzio horren inguruko eztabaida elikatzea.

Nafarroa

“Nafarroan aldaketa ezinbestekoa ez ezik posible zela, PSN irtenbidearen zati baino arazoaren parte zela, hainbeste urtetan aldarrikatu ondoren zirrarez bizi ditut azken hilabeteok. Kriki-krakak daudela? Jakina. Prozesua laua eta lineala izango dela pentsatzea ameskeria hutsa da. Akordioarekiko leialtasuna eta lau alderdien arteko desadostasunak gainditzeko gaitasuna bermatzeaz gain, ea gai garen gizarte mugimenduekin ditugun dialektiketarik elikatzeke. Hori da aldaketa”.

Katalunia

“Kataluniaz hasi orduko letaginek diz-diz egiten didate. Izugarria iruditzen zait, estatua kontra egon arren, modu masibo, bateratu, parte-hartzaile eta demokratikoan adierazi beharrekoa adierazteko duten gaitasuna. Jendarte bizi eta heldu bat ikusten dut hor. Espainia ipurdi bistan utzi dute. Hala, nola ez da izango aldebakarreko independentzia irtenbide zentzuzkoena politikoki, sozialki eta baita instituzionalki ere?”.



ATEAK IREKI

Sabino Cuadra 2012ko iraileko greba orokorrean poliziari Espainiako Kongresuko diputatu agiria erakusten, jo ez zezaten. Eskuineko argazkian, Kongresuan Konstituzioaren ale bat puskatzen.



Erakundeek eta gizarte mugimenduek elkar elikatu dezakete?

Gizarte mugimenduak dira sistema aldatetaren giltza. Jendarte ezberdina pentsatzen ari bagara, Euskal Herri ezberdina eraiki nahi badugu, ez dauka zentzurik aldaketa gobernu baten gehiengoari soilik lotzeak. Euskal Herri berri horrek ez badakar eraberritze eta eraldaketa sozialik jai dugu. Ahalduntzerik gabe, parte-hartze sozialik gabe, gizarte antolaketa horizontalik gabe... nora goaz? Egia da mobilizazio soziala aldaketa instituzionalarekin bat ez doanean konplikatu dela aferra, baina mobilizazio sozialik gabeko aldaketa instituzionalak PP gehiago esan nahi du. Aldaketa soziala ez da hauteskunderen etorriko, hauteskunde emaitzekin soilik ez da jendarte ezberdina sortzen. Sozialki, sindikalki eta feminismoaren ikuspegitik geroz eta botere handiagoa duten saretutako espazio auto-antolatuek dakarte aldaketa. Mugimendu sozialik gabe ez dago Euskal Herri berri eta ezberdinik.

Gizarte mugimenduen eta erakundeen arteko zubiak lastozkoak ez ote diren...

Zubi horiek sendotu eta egonkortzean datza demokrazia sozialista. Esaterako, fabriketako harreman eredu bertikala da, enpresak agintzen du, langileak isilik izerditu, eta tartean gutxieneko batzuk negoziatzeko espazio bat dago. Hori da demokrazia? Zer gertatzen da gizon eta emakumeen arteko harremanetan? Emakumeenak kontsideratzen diren lan zein jarduerak ez daukate onarpen sozial eta politikorik, soldata ezberdintasunak izugarriak dira, onarpen ezak menpekotasun harremanak dakartza eta harreman desorekatuek indarkeria. Hori da demokrazia? Gauza bera, unibertsitatean. Zer da unibertsitatea demokraziarik gabeko kazike kabi bat ez bada? Horregatik diot demokrazia bizitzeko esparru guztietan sustraitzea dagokigula, jendartearen eta erakundeen arteko harreman zuzenak bultzatzea, bien arteko amildegia estali eta elkarlana sustatzea. Gizarte mugimendu eta erakundeen arteko harreman pare-

DONOSTIA 99,2
 TOLOSALDEA 97,7
 GOIERRI 106,7
 BERGARA 100,2
 ARRASATE 106,1
 UROLA 107,7
 KOSTA 107,1
 BILBO 102,3
 DURANGALDEA 100,7
 OTXANDIO 90,4
 IRUÑERRIA 106,7
 GASTEIZ-LAUTADA 103,8

10

URTE

INFO
IRRATIA

ENTZUTEKOA DA KONTATZEKO GAUDE

kideak gobernu baten osasun sintoma behar luke, ez ahultasun seinale. Hori, ordea, ez da hiritarren parte-hartze legeak bozkatzuz lortzen. Auziaren mamira jo behar da, bizitza soziala bizitza politikoa dela onartu eta erabaki ttikienari ere demokrazia dosi bat bota.

Alderdi politikoak prest daude boterea mugimendu sozialekin partekatzeke?

Politikoak soziala banpirizatzeko joera da nagusi. Gizarte mugimenduetan hezi eta hazi den jendea hauteskunderetara-ko amu bezala erabiltzen da baina inork ez du politika uzten auzo elkartean lan egin edo etxe desjabetzeen aurka ari-rtzeko. Denok dakigu politikari profesio-nalek euren neurria egindako fundazio edo enpresa pribatuetara egiten dutela salto. Gure agintari gehienentzat lan guztiek ez dutela garrantzi bera isla-tzen du horrek, euren burua pirami-dearen erpinean mantentzea dela zinez inporta zaien bakarra. Peter-en gaita-sunik ezaren printzipioak garbi dio: de-nok egiten dugu organigrama sozialean gora gure ezgaitasunaren maila gorene-ra heldu arte.

Zortziko txikian

Mariano Rajoy: Gezurti handia.

Pedro Sánchez: Ez hotz ez bero.

Albert Rivera: Rajoyren fotokopia.

Pablo Iglesias: Ezkerrekoa, espainola... Ea bere etorkizun politikoa def nitzen duen.

Uxue Barkos: Komunikatzaile aparta eta politikari ona.

Joseba Asiron: Sorpresa handi bat eta sorpresaren tamainako alkatea.

Arnaldo Otegi: Zenbat bertute! Humanoak, politikoak...

Yolanda Barcina: Inor eta ezer errespetatzen ez duen lotsagabea.

Sabino Cuadra: Jendeak esan dezala!

Jubilatu zinen, erretiratuko zara?

Ez naiz atzo sortua, bi ilegalizazio txan-da pasatakoa naiz. Nire belaunaldikoek orain 40 urteko pelikula daukagu be-gi-ninian iltzatuta. Egun bizi duguna *déjà vu*-aren mugan dago. Ez dakigu filmaren amaiera nolakoa izango den, bukaera oraindik idatzi gabe dagoela sinetsi nahi dut, jendartearen mobiliza-zioek agintarien bide orria markatzeko

besteko indarra izango dutela. Jende berriaren txanda da, aurpegi gazteak behar ditugu gure ideiak egurastu eta programak freskatzeko. Zerrendaburu izateko nire bila etorri aurretik argi eta garbi nioen ez nintzela aurkeztuko. Are indar handiagoarekin diot orain. Nire lana egin dudalakoan nago. Nire egoera eta habitat naturaletara itzultzea toka-tzen zait. ■

IKASTAROA PARTAIDETZA ERTZETATIK:

Partaidetza banaka, taldean eta komunitate mailan sustatu eta laguntzeko tresnak, gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsona eta kolektiboentzat

IRAUPENA: 80 ORDU
FECHAS: DATAN: OTSAILAK 26-27, APIRILAK 1-2, MAIATZAK 6-7, MAIATZAK 20-21, EKAINAK 25
OSTIRALETAN 17:00ETATIK 21:00ETARA. LARUNBATETAN 10:00ETATIK 14:00ETARA ETA 15:30ETATIK 19:30ETARA.

SALNEURRIA: 300 €
Beharpenak jasotzeko aukera: Madrilko Merkatu Sozialeko eta Diagonal egunkariak harpideduntzat, baita kolektibo eta elkarlanean ere

SAIO BAKAR BATEN KOSTUA: 75 €

EGITARAUA:

1. SAIOA: POSIBLE AL DA ERTZETATIK PARTE HARTZEA?
2. SAIOA: GURE IKUSPEGIAREN ALDAKETA: PARTAIDETZAREN IKUSPEGITIK BAZTERKERIA EGOERAN DAUDENEKIN LAN EGITEA.
3. SAIOA: TALDEKO PARTAIDETZA ERTZETATIK HAUSNARTUZ ETA LAGUNDUZ
4. SAIOA: BAZTERKERIA TESTUINGURU BATETIK PARTAIDETZA KOMUNITARIOA
5. SAIOA: GURE PRAKTIKA KRITIKOKI ERAIKITZEA: GAI PRAKTIKOEN INGURUKO AURKEZPENA ETA HAUSNARKETA.

IZEN EMATEA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA:
Andecha taldea. Partaidetza eta Auzolana
www.equipoandecha.org
formacion@equipoandecha.org

Andecha
participación y trabajo comunitario

Tripartita Fundazioaren bitartez hobariak jasotzeko aukera dago. Eskera egiteko epea: Otsailak 15.

Karta jokotik herri gogora



Estitxu Garai Artetxe

EHUKO IRAKASLEA

@egarai

Frank Underwood gupidagabearen hitzak dira honako hauek: “Neurriz kanpo baloratzen da demokrazia”. Trikimailu ugari erabilia eta hauteskondeetara aurkeztu gabe, AEBetako presidentziara iritsi ondotik esandakoak. *House of Cards* telesail zirraragarriko pasartea da hori, fikzioa, alegia. Jakina da, ordea, sarri askotan errealtateak fikzioa gainditzen duela.

Demokrazia terminoa gero eta lausoa goa da. Urruti du sorburuko esangura hura: herriaren boterea. Herriarren borondateak hanka motzak ditu gaur egungo sisteman. Lau urtean behin boza eman eta, gero, hautagaiek nahieran baliatzen dute sostengu hori. Zeharkako parte-hartzea deritzo, baina zeharretik doazenak alderdiak dira. Emandako hitza hauteskunde-biharamunean haizeak nola eramaten duen ikusten dugu maiz.

Espainiako kongresu zatikatu berrian, botoek karta jokorako balio dute, alderdien ordezkariak jokorako emandako kartak dira. Zenbat eta gehiago, orduan eta posizio indartsuagoa negoziatzen da. Baina ahotan darabiltena ez da mandatu demokratikoa edo kanpainen egindako promesak azken burura eramatea, politikariak eurak negoziatzen dituzten indartuta nola aterata baizik. Batak hordago txikira, besteak hordago handira, baina hor ez dago herriarren interesik.

Gobernua osatzea ahalbidetuko duen akordioaren bila, espektakulu galanta ematen ari dira Espainiako alderdi-burak. Barneko tirabira edo egoera zehazten menpe, pertsonalismoak politikan duen pisua erakusten ari zaigu, zein baino zein lotsagabeago. Ordezkaritza publikoa ulertzeko modu bitxia dute gero. Hasieratik horrelako arduragabekeria erakutsita, ez da harritzekoa urteetan funtzio publikoak izan duen ustelkeria intrintsekoa. Kleptokrazia ere demokrazia ei da.

Espainiako kongresu zatikatu berrian, botoek karta jokorako balio dute, alderdien ordezkariak jokorako emandako kartak dira. Zenbat eta gehiago, orduan eta posizio indartsuagoa negoziatzen da. Baina ahotan darabiltena ez da mandatu demokratikoa edo kanpainen egindako promesak azken burura eramatea, politikariak eurak negoziatzen dituzten indartuta nola aterata baizik

Gainerako presio-taldeak ere, hautes-tontzien premiarik ez duten horiek, beren gordintasunean ikusi ditugu: botere ekonomikoak, hedabide talde handiak, mandatarari ohiak... Banan-banan agertu dira, bata bestearen atzetik, komenigarriena zer edo zein izango litzatekeen esatera. Sistemaren parasitoak bere bazkaren defentsan.

Eta gu, oi gu, hemen, bidean galduak, haiei begira. Espainiako politika aldakorri so daramatzagu azken asteak. Kon-tuok Ebrotik behera gertatzen direnean, erraza da kritikak egitea. Gurean ere, tamalez, zakurrak oinutsik. Azken boladan asko hitz egiten da alderdien barne demokraziari buruz, zer hobetu handia dutelakoan. Horretaz gain, alabaina, badugu zer landu herriarrok oro har, ez bakarrik alderdietako militanteek, demokrazia parte-hartzaileago bat lortzeko eta herri-erabakien parte aktibo izateko.

Gertuko administrazioetatik gauza asko egin daitezkeen arren, erronka handiagoa da, estatuak baitira demokraziak eraikitzen dituztenak, ustezko subiranotasuna markatzen dutenak. Binomio horrek, estatuak eta demokraziak, badu hirugarren hanka bat: demokrazia eta legea berdintzea. Askok dakigu horretaz Euskal Herrian, demokrazia izatea konstituzioari eta Espainiako lege-bilbadurari men egitea dela saldu nahi izan baitigute beti.

Herriarrek subiranotasuna galdu dutela sentitzen dutenean edo lege injustuen aurrean, zilegi eta beharrezkoa da ahalduzkoaren eta desobediencia-aren bideari ekitea. Bere esentzia eta esanahia berreskuratzeko, bota dezagun demokrazia zerri askara, eta eraiki dezagun berri bat oinarritik, berdintasunean eta justizia sozialean oinarritutako demokrazia parte-hartzaile berria. Espainia aldera begiratzea ondo dago, zer egin ikasteko bada ere. Beste kontu bat litzateke hara begira baino ez egotea. ■

Bi uren artetik

Iragarri dute Baionako Planning Familial elkartearen hestea. Elkarre horiek herri zokoetara heltzeko sortu ziren gerla ondoko giroan, emazteen eskubideen defendatzeko. Hastapenean ardatz bazituzten kontrazepzioa eta abortuaren legeztatzea eta informazioa, berantago zabaldu zuten ildoan, askapen eta berdintasunaren alde, diskriminazioen eta bortizkeria mota guztien salatzeke, beti herri mugimenduaren oinarriekin, popularrak, hurbilak, brikolaje girokoak, hezitzaile rol garrantzitsuekin. Gainera transmisio helburua ere zuten, belaunaldi batetik bestera aldarrikapenen jarraitzea, hezkuntza bideratzea, lortuaren bermatzea. Urak bidea egin zuen. Sozialistak boterera heltzean, oro har, bere eginen zituzten gai eta aldarrikapen feministak, baita hortik landa gaia instituzionalizatu, legerien bidea zabalduz. Herrietan gaindi lanean segitu zuten mugimendu herrikoiek; gaur ere hor diraute emazte antolakunde zabal anitzek, aldarrikapenak ozen eta *happening*az jantzirik ermaten trebe. Iparraldean ez dira eskas emazte elkarreak, erranen didazue, alta gero eta gutxiago dira, oihartzun gero eta ahulagokoak.

Baionako Planninga hetsiko da eta beste lurraldeetakoak mehatxu berarekin dira. Zerratzearren arrazoien artean aitzina segitzeko militante eskasa aipatu da; nehor gutxi baizik ez da informatzeko permanentzien egiteko: ospitaleko zerbitzu gairidituetara jo beharko da, bestalde informazioarako bide anitz ba omen dugu gaurko egunean, alha alde orotan. Alha bai, bila doanarentzat eta informazio xuxena gainerakoarengandik bereizten dakienarentzat.

Pentsa dezakegu aitzinatua dela dena, erakunde erraldioen eta politikarien esku uzteko, behartsua bideratuz webgune zenbaitetara edo zerbitzu goizetik arrats galkatuetara. Alta, aitzia-



Bea Salaberri

EUSKARA IRAKASLEA

@beatxo



Antton Olariaga

nekoen lorpenak gauza finko, bermatu eta definitiboak direnik ez da egia. Goizero gertakari nahiz detaile berri batek ilustratzen du. Iaz, Emazteen Eskubideen Behatokia hesten zen; finantzamendu istorio. Atzo, bikote gazte bati so, mutikoaren jokamoldeak bezainbat, neskaren onesprenak harritu ninduen: gaurko neskak gehiegi isiltzen dira. Auzoko farmaziako nagusia pleinitzen da gazteen desinformazioaz, biharamunek pilulen salmenta beste antisorgailu edo preserbatiboena baino anitzez handiagoa du; hormona gaindosien ondorioez alarmista da. 2015ean (ofizialki) sei emazte hil ziren senarraren eskutik Euskal Herrian, 2014an Frantziak 134koa aitzinatzen zuen. Ez dakigu zenbatek zuen etxetik ihes egin, zenbatek jazarpena jasan lantokian, zenbatek beharrean ez asmatu norengana itzul laguntza edo aholku bila. Ultra taldeek ez dute okasio bakarra huts eginen eskubiderik arruntena eztabaidan jartzeko. Dena bat.

Uren kontra ez bagabiltza, bi uren artetik agian bai, etengabeko erronka berriei buru egin nahian, iraganeko auziak nahiz lorpenak baliatuak, zainduak eta transmitituak direla segur izan gabe. Badirudi Euskal Herrian beste lekutan bezala, feminismoak badituela mugimenduak, diskurtsoak, ahotsak, mobilizazioak, erakundeetara heltzeko asmoa, neurtzen ez dudana da ea nola eginen dugun erritmo honetan jarraituz, gurean behintzat, erroturik geratzeko gizartearen, mugimendu popularra izaten segitzeko. Dena ukanik ere eskura, sare, liburu eta aldizkaritan, tresna horiek ez lezake ordezka hurbileko sare eta iniziatiba, funtsezkoa herria bada eta auzokoari ez huts egitea. Bestela, laster, lortua suntsiturik gertatu eta beharko da gibelera egin konpontzeko. Besterik ez baikenuke eskas. ■

Zer moduz? Itxuran!



Iñaki Murua
BERTSOLARIA

Itxuratu, horixe da lehentasuna egungo gizarte-
tean, ezta? Irudia, ontzia, formak... zenbakiak,
kopuruak, bisitak... kontzeptu horiekin bete-
tzen zaigu ahoa, bihotza hustu ahala. Disimula-
tzen ere asmatu ezinik gabiltza; asko jakin behar
baita ongi disimulatzeke, eta gainera asmatu egin
behar. Nagiak ondo atera gabekoaren pausoan
goaz eskolara zein parrandara edo bietatik itzul-
tzean. Nola sosegatu sabeleko tristura, batzuk eta
hutsunea bestetzek? Sabelpekoarekin ere beste
horrenbeste esan nezake, ala?

Hutsik dagoen bihotzak hutsune horiek senti-
tzen al ditu? Ala, beste hutsune horiek hustu digu-
te bihotza? Ez da gezurra ontzi hutsak ateratzen
duela hotsik gehien; egizu txistu zeu beste inor
gabe zaudenean tunel batean, zenbat eta luze-
ago (txistua nahiz tunela) eta eternoago entzungo
duzu erantzuna. Tunel hori jendez lepo dagoela
txistu jotzen baduzu, berriz, askozaz apalago en-
tzungo da, baina tunela jendez bete nahian lanean
jardun duenari izugarri luzatuko diozu tunela.
Hutsaren hurrengo bihurtuko duzu haren lana
eta, bere baitan, hustasunak egingo du oihartzun!

Iazko udazkenak aurtengo neguari terrenoa jan
dionean eta neguak ez musika ez partitura aur-
keztu ez digunean, elur maluten ordeztu errugabe-
ko haurra lurrera amilarazi dugula ikusita, negu
beltza irudi. Egunero dauzkagu motiboak geroa
beltz ikusteko; pauso nagiz mugitzeko. Batzue-
tan geuk ondo egindako lana zapuztu digutelako;
bestetan guk nahi ez bezala antolatu digutelako
ingurua: gizartea, mundua. Gutxi batzuk ondasu-

nak txarkeriaz arpilatu dituztelako eta mundua
alde batera kargan jarri, lehen asko dutenengana
gehiago joateko egiera edo ixuria emanda!

Nerabe artean nabil, zorionez, eta gurasoak da-
tozkit ("amak" esanda egiago litzateke!) barruko
egonezin ospinduak zein ontzitarra bota ez da-
kitela (zoaz porculo hartzea, subnormala...) edo
antzeko erantzunak beren seme-alabengandik
noiznahi jasotzeaz gogaituta! Ni prest, ama horiei
entzuteko; beren barruko errefusen ontzi bihur
nazaten, nahiz eta badakigun barruak betetzeko
askoz gehiago egin behar dugula.

Itxurazko mundutik itxuraren mundura dagoen
zubitik, jarraian datozenak ere pasa dira: Italian
turkiar ministroa datorrelako eskultura biluziak
izaraz estali eta otordua ardorik gabe egitea. Da-
nimarkan etorkinei, mantenu kostuak ordainaraz-
teko aitzakian, bitxiak bahitzea legez arauturik;
eskolako patroiararen egunean edari alkoholdunak
18 urtez behekoei ez zerbitzatzeko arauak bete-
tzeko itxurak egitea, jai egunetan ez ikusia eginez.

Zubiak modan daude. Alde batetik bestera
pasatzeko nahiz, bi aldeak batzeko balio dute-
lako, omen. Azpitik pasatzen dena ikusteko eta
hari begira, ikusmirarekin gozatzen dugulako ere
gustuko, noski. Inork ez du aipatu zubipean bizi
denik. Igual horregatik ere gustatzen zaizkigu,
haiek ezkutuan gordetzeko balio digutelako!?

Zubi itxurazkoak eraiki nahi eta ezinean, erre-
kako ur nahasietan, zopa eginda gabiltzan bitar-
tean, betikoak, erreka ertzetik zopa janez, begira
sentitzen ditut. ■

Zinkan bero



Joanes Etxebarria
KAZETARIA

Muguruzak kantatu zuen: "Zinkaz ari diren
gazte horiek ez dute hotzik sentitzen".
Ulertzen dut erranahia, baina Mauleko
Zinka ostatura neguan sartu denak badaki hotza
sentitzen dutela, eta hezurretaraino gainera!

Hotza udan ere senti daiteke urte batzuetan.
Borondate onenarekin egitaraua prestatu eta
gero, Mauleko bestak triste atera, jenderik ez, di-
rurik ez, eta urteko gastuak ziurtatzeko zailtasu-
nak... hotza.

Kolektiboak kartsuki abiatu ohi dira antolatzaile
lanak egitera, baina urteak joan eta haiek ere
hozten dira, edo sinpleki akitzen, lekukoa beste

talde bati emanez. Izan dira ere gualdi hotzak,
baina non ez?

Gehien hoztu nauena azken berria da. Zinkaz
ari diren gazteek jakinarazi dute pertsona batzuk
gauetz sartu zirela ostatuan, ateak bortxatuz. Diru
bila joan baziren haiek ere ederki hoztuko ziren
han barnean. Besterik nahi bazuten, ulergaitza da.
Karrika bereko beste ostatu batean sartu ziren
beste ezezagun batzuk duela aspaldi. Zergatik es-
kuzabalenak eta pobreenak ebatsi nahi dira?

Antolatzaileek berek, erantzun ederrena eman
zuten sare sozialetan: "Bortak denentzat zabalik
dira, ez dira bortxatu behar". ■

Europa, alaitasunetik gutxi

Donostiako Konstituzio Plazan Beethovenen bederatzigarren Sinfoniari (*Alaitasunaren oda*) egindako txistualdia, bistan da ez zela maisu handiaren aurkakoa, bere himnoa bahitu duen Europar Batasunaren aurka baizik. Nago, Beethovenek burua altxatuko balu gauza bera egingo lukeela. Hirugarren Sinfonia, estreinakoz, Napoleoni eskaini zion miresmenez, hark sinbolizatzen zuen iraultza globalak eta bera sortzen ari zenak bat egiten zutelako. Alabaina, Napoleonek bere burua enperadore egin zuenean Beethoven haserre bizian jarri zen, Napoleon izena ezabatu zuen ez zuelako maite despotarik, ez zaharrik ez berririk. Egungo Europa despota zaharrez eta berriz gainezka dugu, nire uste apalean, eta gainera oso gutxi ilustratuak.

Ezin ukatu, 1950ean Ikatz eta Altzairuaren hitzarmenarekin sei estatuk (Frantzia, Alemania, Italia, Belgika, Luxenburgo eta Herbehereak) abiatutako bidea, I. eta II. Mundu Gerrek eragin zituzten estatuekiko konpetentzia inperialistak gainditzeko aurrerapausoa izan zela. Gainera, gerren triskantzek eragindako eraikuntza lanen baitan langile mugimenduaren eta ezker sozialdemokraten indarrari esker eraikitzen ari zen ongizate-estatuaren ereduak asko



Joxe Iriarte *Bikila*

IDAZLEA

Egungo Europa despota zaharrez eta berriz gainezka dugu, nire uste apalean. Eta gainera oso gutxi ilustratuak

lagundu zuen europartasun aurrerakoia gauzatzen, nolabait, AEBren modelo gordinetik bereizteko gai izango zena eta bidenabar Gerra Hotzaren testuinguruan Sobiet Batasunari aurre egin lekioketena.

Harrez geroztik, atzeraka goaz. Europaren komunitatearen eta batasunarena ondorengo hedapena, muturreko neoliberalismoan (Alemaniaren nagu-

sitasunaren menpean) hitzarmen eta dekretuetan eraikitzen joan da (Maastricht, Lisboa eta abar) ekonomiaren eta monetaren batasunean oinarrituz.

Egungo Europak (ez nahiko genukeena) gutxi du giza-eskubideetan, justizian eta demokrazian oinarrituriko adostasunetik eta gehiegi inposiziotik, diskriminaziotik, esplotaziotik eta xenofobiatik. Gainera, Europa iruzur galanta da kulturaren ikuspegitik (baita kultur hiria izendatzen dutenean, negozio eta espekulazioari bide emanez, benetako kulturari bide eman ordez).

Europar aginduen makila Troikaren eskuetan dago. Inork hautatu ez duen erakunde horrek bahitu egin dizkigu –hiritarrei eta herriei– etorkizuna erabakitzeko eskubidea eta ahalmena. Horra hor, Grezian gertatutakoaren benetako irakaspena. Harrigarria egin zait A-20ko hauteskundeetan ia inork ez aipatzea gure gainetik dauden botere faktiko horien zama, (Europako komisiok jada exijitu dio espainiar gobernuari 11.000 milioi euroko jaitiera gastu sozialetan), nola edo hala astindu beharko duguna Europa berri bat nahi badugu.

Egungo Europa, soil-soilik kapitalarentzat da hesi gabeko eremu librea. Gainerakoak, berriz, lubakiz eta hesiz beteriko mugetan itota gabiltza. ■

ARABAKO BERTSO KADRILLA ARTEKO A

LAJADAKO TOPAKETA

ARAI

/ZALDUONDO

OTSAILAK 13, LARUNBATA

12:00etan BERTSO-TXALAPARTA POTEOA Araiako Aratz tabernatik hasita

14:30ean BAZKARIA (12€) Zalduondoko txokoan

Izena emateko 609258267, 608088648

16:30ean BERTSO-BOLO Zalduondoko bolatokian

www.bertsozale.eus/araba

BOSTIBAKETA LEGITIO

LUPIZARRATEKO TXERRONAK ZALDUONDO

LAJADAKO SORGINETXE

Otsailak 19, ostirala

Ordutegia: 11:00-14:30 / 16:00-20:30

ZIRKULO BERDEA

- 09:00 / 13:00** **Passivhaus formakuntza** (izen ematea eta informazio gehiago: info@onhaus.es)
Passivhausaren 5 printzipioak (Pedro Mariñelarena, arkitektoa)
Blower door-a eta termografia (Eneko Iraizoz, ingeniari termikoa eraikuntzan)
Eraikinerako-siga hermetikotasunaren inguruko tailer praktikoa (Koldo Monreal, Zuzendaria onhaus-en)

17:00 / 20:00 Ludoteka

HITZ BERDEA

- 17:00 / 17:30** **Bizkaiko Iraunkortasunera hezkuntzako ekintza egitasmoa 2020**
Xabier Arana (Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen iraunkortasuneko eta Hezkuntzako Atal Burua)
- 18:00 / 20:00** **Tokian-tokiko ekimen arrakastatsuak**
Mugikortasun jasang. apostua (Durangoko Udala)
Atez-ateko zabor bilketa sistema (Usurbilgo Udala)
District Heating beroketa sistema (Ispastergo Udala)
Ukanauto eta BIZIMETA alokairu sistemak (Uribe Kostako mankomunitatea)

FILM BERDEA *Plateruena Kafe Antzokian*

- 17:00** INTO ETERNITY (2009, Michael Madsen, 75 min., Ingelesezt - azpitituluak gazt.)
- 22:00** BIKES VS. CARS (2015, Fredrik Gertten, 91 min., Ing-Port-Gazt - azpitituluak gazt.)

Otsailak 20, larunbata

Ordutegia: 10:00-14:30 / 16:00-21:00

ZIRKULO BERDEA

- 10:30 / 11:45** **Quantum energy generator, Mitoa edota errealitatea?***
- 12:00 / 13:15** **Ikasi zure elektrizitate faktura ulertzen** (Goienere eskaintako ikastaroa)
- 13:30 / 11:45** **Hidrogenoa, oraina eta etorkizuna ***
- 17:00 / 20:00** Ludoteka

HITZ BERDEA

- 11:00 / 13:00** **Hezkuntza, zeintzuk dira nire alternatiba berdeak**
Repelega Institutua, Portugalete (Mixel Gomez, irakaslea)
Lea Artibai Ikastetxea, Markina-Xemein (Iagoba Bergara, irakaslea)
MONDRAGON UNIBERTSITATEA (Fernando Garramiola)
EHU-UPV, Eibarko ingeneritza eskola (José Ignacio San Martín, zuzendaria)

- 17:00 / 18:00** **Batzuen zaborra, beste batzuen negozioa.**
100% birzikled
Paperezko ehungintza (Ainhoa Mujika)
Paleike, birziklatutako paletekin egindako altzariak (Jesús Rivas eta Maitri Ugalde)

- 18:30 / 19:30** **Euskal Herria eta bizikleta**
25 urte pedalei eragiten hiria aldatzeko (Kalapie, Hiriko txirrindularien elkarte)
Bizikleta eta bere ekarpena Euskadiko mugikortasun jasangarrian (Ibon Hormaeche, Iniciativas ambientales)

Otsailak 21, igandea

Ordutegia: 10:00-14:30 / 16:00-20:00

ZIRKULO BERDEA

- 10:30 / 11:45** **Zelula Termoelektrikoak, peltier/seebeck efektuak ***
- 12:00 / 13:30** **Maglev, lebitazio magnetiko/kuantikoa ***
- 17:00 / 20:00** Ludoteka

HITZ BERDEA

- 12:00 / 13:00** **Kontsumo zero, enpresa eta etxeetako esperientziak**
Eroski Ali Gobeo (Xabier Esteban, Eroskiko ESK eta Jasangarritasun saila)
Passivhaus etxebizitza bat eraikitzearen esperientzia (Eva Isasi, Diego Arzanegui eta Lander Olabarri)
- 16:30 / 17:45** **Eraginkortasun energetikoa etxean**
Energia berriztagarriak eraikuntzan (Rubén Amparan, Lansolar)
Etxean energia aurrezteko kasu praktikoak (Josu Salazar, Ekidom)
Lastozko eraikuntzen garapena (Jose Luis Veiga, Ecopaja)
Errehabilitazio energetikoa eraikuntzen alde pasiboan (Patxi Padura, Efeuue Fachadas Ventiladas)
- 18:00 / 19:30** **Toxikorik gabeko etxebizitza**
Inhar Agirrezabal (Ari arkitektoa, Bioeraikuntzan masterra eta aholkularia)
Amaia Iriarte (Medikuntzan lizentziatua, Homeopatian espezializatua eta Erizaintzan diplomaturia)

FILM BERDEA *Plateruena Kafe Antzokian*

- 10:30** **WALL-E** (2008, Andrew Stanton, 103 min., gaztelaniaz)
- 16:30** **TIERRA PROMETIDA** (2012, Gus Van Sant, 106 min., gaztelaniaz)
- 18:15** **Baso ahaztuak** (2013, I.Yurrebaso - I.Pujana, 61 min., euskaraz-azpitituluak gazt.)

* Luis Sutilek, Maristak Ikastetxeko irakasle ohiak eskaintako ikastaroa

1936ko Gerrako lubakiak

Errepublikararren urratua agerian



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Intxortan edo Bizkargin gerra zibilean izandako borrokaldiak aski ezagunak diren arren, egiaz zer dakigu? Zaharrenen ahotik entzun edota militarren egutegietan irakur dezakegu zer edo zer. Zaila da, ordea, frontearen probatutako hotz eta beroa hitzez azaltzea. Azken urteotan lehen lerroko eszenatoki horiek berreskuratzen ari dira herri-ekimen eta arkeologoak, gudari haien azalean jarrita bizi izan zutena uler dezagun.



Fusilatuen gorpuzkinak deshobiratzen segitzen dugu gerra hasi eta 80 urtera. Azkenekoak Ezkabatik ihes egindako 14 presorenak, Olabeko kanposantu ondoan frankistek hil eta lurperatuak. Euskal Herrian, atzeguardian izandako basakeriak

ikertu eta ahanzturara kondenaturiko lagun horiei duintasuna itzultzea izan da lehentasun azken hamarkadan.

Baina gertaturikoaren oroimen historikoa berreskuratuko bada, osotasunean egin beharreko lana da hori. "Oroimen

historikoa ez da soilik gorpuak ateratzea, testigantzak eta gerra zibileko gu-neak berreskuratzea ere bada", zihoen Aranzadi Zientzia Elkarteko Javi Buce-sek 2013an Adunako Belkoain mendiko lubakietan indusketak hastear zirela.

1936ko uztailean altxamendua egin eta 1937ko ekainaren 19an Nafarroako bosgarren brigadako erreketee Bilboko udaletxean *piperpotoa* jarri zuten arte, 11 hilabete baino ez ziren igaro. Denbora horretan Gipuzkoa eta Bizkaiko mendi lerroak lubakiz bete ziren, orain arte uste izan dena baino sare konplexuagoa osatuz. Defentsa sistema horri esker sortu zuen Agirre lehendakariak gobernua eta aurre egin ahal izan zioten eraso faxistari:

*...batzuk batetik bestek bestetik
atzeruntz ziran abitu,
horlako zurra eramaterik
etzuten asko pentsatu...*

Kalamuatik idatzitako bertsoek ondo ilustratzen dute hango borroken gogortasuna. Baina are hobeto irudika liteke mendi magalean sugea moduan kontserbatzen diren lubakiak bertatik bertara ikusita. Kalamua eta Akondia irteerak antolatu izan dituzte inguruko herrietatik gerrako aztarnak ezagutzeko. Hortik gertu dagoen Intxortan, berriaz, badira urte batzuk Elgetako Udalak Intxorta 1937 Kultur Taldearen laguntzarekin parke tematikoa ireki zuela.

Geroztik beste hainbat tokitan ere berreskuratu dituzte gerrako lubakiak. Belkoainen 200 metro baino gehiagoko lerroa azaleratu zuten bertako auzolandegietan izandako Euskal Herriko eta kanpoko gazteek. Lemoatzen ere auzolanean oinarritu dira mendi tontorreko arrasto belikoak industeko -hildako miliziano baten hezurak ere identifikatu ahal izan zituzten egindako lanei esker-. Bilbo defenditzeko helburuz eraikitako *Burdinazko Gerriko* famatuaren hormigoizko babeslekuak ikusgai jarri dituzte Berango eta Sopela inguruan; Laudion Kamaraka mendian gerriko horren lubakiak daude bistan, baita Ugao-Miraballese eta Larrabetzun ere. Mendi ibilbideak, lasterketak, interpretazio zentroak... Ondare hori guztia ezagutzeko gero eta aukera gehiago dago.

Ez da jakin-min hutsa. Iraganeko kontakizun ahalik eta fidelena egiteko ezin bestekoa da gerra hilabete horietan frontean bizitakoaz jabetzea, konprenitzea



1936KO GERRAKO LUBAKIAK EUSKAL HERRIAN



zein egoeratan borrokatu ziren batzuk eta besteak. Halako indusketa baten helburua ezin hobeto deskribatu du Andres Zarankinek, Argentinako diktadura militarren errepresioa ikertzen arituta-ko antropologoak: “Oroimen materiala sortu nahi dugu, hau da, zerbait fisikoa bihurtu, hitza ez den beste modu batean ulertu ahal izateko. Ukitu, usaindu eta bizi egin dezakegun oroimena alegia”.

Arkeologiak paper oso garrantzitsua jokatzeko du horretan guztian, hain hurbilekoa zaigun historian tradizio handirik ez badu ere. 2014ko abenduan Espainiako Gerra Zibilaren Arkeologiaz I. Kongresua egin zuten EHUn. Bertan, Alfredo González Ruibal CSIC erakunde-ko ikertzaileak honako hausnarketa egin zuen: “Ezaguna zaigun zerbait sumatzea lehen aldiz ikusi izan bagenu bezala, eta horren bidez ezagutza sortzea, hori ere egiten du arkeologiak. Sentsazio hori sortzeko ondo induskatu behar da, baina historiak eraikitzen ere jakin behar da”.

Murugain: 1936ko Gerra eta Burdin Aroa eskutik helduta

Euskal Herrian metodologia arkeologiko zehatza erabiliz induskatu den lehen lubakitzat jo liteke Murugaingoa. Lehenago ere jakina zen Araba eta Gipuzkoako mugan dagoen muino horretan Burdin Aroko herrixka bat eta gerra zibileko arrastoak zeudela. Aramaio-ko Udalaren enkarguz eta Arabako Arkeologia Museoaren laguntzaz, Ondare Babesa enpresak 2011n ekin zien lanei eta hainbat kanpaina egin dituzte.

» ETOR TELLERIA:

“Badakigu nork galdu eta nork irabazi zuen. Orain jakin nahi duguna da nola bizi izan ziren han izan zirenak”

Etor Telleria historialari eta arkeologoa aritu da indusketa horiek zuzentzen: “Lehenik agerikoena zen toki-eta-ra jo genuen, Aramaio aldean Burdin Aroko harresia oso ondo kontserbatzen baita. 20 metro koadroko zundaketa handiak egin genituen eta ikusi genuen paraleloki sakonune bat zegoela harresiaren ondoan: hori zen lubakia”.

Unitate estratigrafiko edo geruza bakoitzaren ezaugarriak ezberdindu dituzte, topografian erabili ohi den estazio-totala erremintaren bidez ingurua neurtu dute, eta fotogrametria teknikaz lorturiko argazki erregistroarekin hiru dimentsioko irudiak sortu dituzte. Horrekin guztiarekin aztertu ahal izan dute nola egin zen lurreko moztura eta zein logika segitzen zuten lubakien errenkadek: “Konturatu gara defentsa lerroa uste baino konplexuagoa zela, lerro nagusiarekin komunikatzen ziren lubakiak eta babeslekuak ere bazituela”, dio Telleriak.

Halako aurkikuntzek hankaz gora jartzen dituzte Euskal Herrian errepublikarren frontea ahula eta inprobisatua

izan zela dioten usteak: “Lanean hasi nintzenetik entzun izan dudana teoria da hori, lubakiak azken momentuan egin zirela. Nik ez dakit presaz egin ote ziren, baina gogoz egin zirela bai: bertako harkaitza zulatzea pikatxoarekin...”. Arkeologoak azaldu duenez, horrelako egiturak egiteko beharrezko izaten ziren zapadoreak eta ingeniariak. Nolanahi ere, indusketen emaitzek erakusten dute gudariak lehenetik zeuden arrastoak ere baliatu zituztela lubakia egiteko, ia 3.000 urteko Burdin Aroko harresia bera edota babesleku gisa erabilitako karobia kasu.

Murugaingo gaina estrategikoa zen kolpistak Debagoienan sar ez zitezen, baina lubaki horiek ez ziren era isolatuan zulatu, Jalindo eta Gorbeia mendietan ere aztarnak nabarmenak dira. Ondare Babesako kideek eskualde osoan egin dituzte miaketak eta ikusi dute Otxandio, Arrasate eta Bergarako inguru guztiak lubakiz josita daudela.

1937ko martxoaren 31n Mola jeneralak Bizkaiko erasoari ekin zion eta Murugaingo inguruak frankisten esku geratu ziren. Egun horietan izandako borrokaldien erakusgarri ditugu hementeko kronikak. *Eguna* euskal egunkariak “Gorbea gurea da!” zioen ozen: “Gorbea aldian sartu ziran moruak jaurtiak izan ziran”. Aldiz, *La Voz de España* konplexu gabe baieztatzen zuen Murugainen eroritako “su eta burdinak sumendi itxura” eman ziola tontorrari.

Nola jasan zituzten egoera horiek bertan izandako soldaduek? Telleriari

“mikrohistoria” hori interesatzen zaio gehien: “Mugimendu militarrei buruz asko dakigu, dena dokumentatuta dago eta badakigu nork galdu eta nork irabazi zuen. Orain jakin nahi duguna da nola bizi izan ziren han egon zirenak, kasu honetan *Dragones* batailoikoak”. Indusketetan gerra “humanizatzen” duten objektuak aurkitu dituzte: esne kondentsatu eta haragi egosi latak, botoiak, oinetako zolak, narru zatiak, arkatzak... Horrez gain, munizio ugari ere aurkitu dute, jandak Lehen Mundu Gerran erabilitakoa.

Eskuzko granadak, mortero militarren kontra Zubietamendin

Bala-zorroen eta lehegailu zatien azterketa ez da bigarren mailakoa, eta horretaz asko daki Joxe Agustin Muguruzak. Han eta hemen ibili izan da interes historiko hutsez: Urkiolako Saibigainen, Legution, Intxortan... Bere esanetan, bestela ere *txatarreroak* aspaldi ibili izan dira mendietan, zenbait objektu “ondo pagatzen” baitira arautu gabeko merkatuan.

Zubietamendiko Txaldataxurren aurkitu dituzten eskuzko granada errepublikarrak oso preziatuak lirateke merkatu horretan, baina zorionez Lasarte-Oriako udaletxean egongo dira ikusgai bitrintan. Muguruza Islada Ezkutatuak-eko kide da, eskualdeko oroimen historikoa berreskuratzeko lanean ari den taldea. 2013an lehen arrastoen bila abiatu ziren Txaldataxurrera eta geroztik gutxienez 120 metro lubaki aurkitu dituzte, baita munizio berezia ere.

Eskuz egindako 22 lehegailu atera dituzte lur azpitik. Iturgintzako hodiekin egindako granadak dira, 1936ko testuinguruan eta aurretik oso erabiliak –*txorizoak*, *txurroak* edota *ukondoak* izenez ezagunak-. Seguruenik hortik gertu zegoen Brunet y Cía ehun lantegian manufakturatu zituzten. Ez dira herdoildutako pieza hutsak. Aurkikuntza horrek erakusten du zein baliabide kaskarrekin egin behar izan zieten aurre errepublikarrekin altxamendu militarri.

Andatzako fronteko erpin batean zegoen Txaldataxur, “fronte horrek mantendu zuen Gipuzkoa denbora askoan errepublikarren esku”, dio Muguruzak. Eusko Legebiltzarrak eskatuta EHUKo ikerkuntza talde batek egin berri duen *Memoriaren ibilbideak* txostenean, “gerra memoriaren” tokien zerrendan ageri dira inguru horiek. Bertan ibili ziren atzera eta aurrera Amutegei batailoiko



ONDARE BABESA



ARGAZKI PRESS / JON URBE

Goian, topografia lanak egiten Murugainen. Behean, Zubietamendin aurkitutako eskuzko granada errepublikarren aurkezpena Lasarte-Oriako udaletxean.

sozialistak, Eusko Gaztedikoak, anarkistak, Kandido Saseta komandantea, Koldo Mitxelena euskaltzalea...

Gerra hasi berritan, jendea ez zegoen prestatuta, Muguruzaren esanetan, “horregatik Intxortako lubakiak eta hementxoak ez dira berdinak”. Diferentzia hori ere agerian geratu da faxisten eremuan aurkitutako beste lubaki bateko materiala inbentariatzean: jaurtigai aerodinamikoak, bala-zorro berriak, atun lata ugari... Molarena ejertzito profesionala zen. Eguneroko bizimoduaren berri ematen duten eraikuntzak ere azaldu dira. Lanean ari zirela, zeharrean zihoan zulo bati erreparatu zioten Islada Ezkutatuak taldekoek, eta industen hastera-koan, muniziorik ez baina iltzeak atera

zituzten atzaparrak betean: “Hasieran *flash* bat izan zen, gero ohartu ginen komunak zirela eta iltze horiekin lotzen zituztela egur-olak”.

Jendeak zer gertatu zen jakin nahi du Herri-ekimenean eta administrazioetan dabilzan eragileek garbi dute lubakien berreskurapenak ez lukeela zentzurik ondare hori oroimen kolektiboan zabalatzeko ahaleginik egiten ez bada: “Guk ez genuen izan nahi arkeologo talde bat hilabetea mendian pasa eta ondoren laborategian ixten dena”, dio Etor Telleriak. Aramaioko udalak ere proiektu irekia proposatu zien, indusketak auzolanean egitea: “Ondo koordinatuz gero emaitza onak eman ditzake, parte hartzearen

EMAKUMEAK LUBAKIGILE

1936ko Gerrako borrokaldiak objektu, film edo herri-antzerkien bidez berregiteko joera gero eta handiagoa da. Sancho Beurko elkartek, esaterako, makina bat dokumental arrakastatsutan parte hartu du, batzuk ETBrekin lankidetzan. Intxorta 1937 Kultur Taldeak eta Elgetako Udalak, berriz, mendi mitikoan gertaturiko triskantza gogoratzen dute urtero, antzerki herrikoi eta parte-hartzailearen bidez hainbeste urtetan isilarazitako biktimak omentzeko.

Europako herrialde askotan errekreazio belikoak tradizio handia du, dibulgazio-metodo eraginkorra izan liteke ondo erabiltzen bada: garbi eduki behar da zer helbururekin egiten den eta zer transmititu nahi den, militarismoan, mitifikazioan edo diskriminazioan erori gabe.



GUREGIPUZKOA.NET / I. OJANGUREN

Lubakiak berreskuratzeak ere baditu arrisku horiek. Frontean borrokan aritu ziren gizonetako protagonismoa eman eta emakumeak itzalean uztea, adibidez. "Emakumea beti geratzen da gerra zibilean existitu izan ez balitz bezala" dio Etor Telleriak. Iaz, Bilboko Artxandan dauden lubakietan jardun zuten lanean –hiria defendatzeko azken lerroa izandakoan– eta arkeologoak azaldu duenez, atal berezia sortu zuten emakumearen parte-hartzea aztertzeko: "Dokumentazioa badago erakusten duena emakumeak nola igotzen ziren Artxandara, bai lubakiak egitera eta baita borrokatzera ere". *Burdinazko Gerrikoa* eraikitzen ere lana errutik egin zuten emakumeek; Berangoko Memoriaren Museoan ikusgai dauden argazkiak dira horren lekuko.

bidez lortzen da jendea sentsibilizatzea herriko ondarearen inguruan".

Eta zerk bultzatzen du pertsona bat duela ia 80 urteko lubaki batean sartze-ra? Zer sentitzen du? Joxe Agustin Mu-

guruzaren hitzetan, jendeak zer gertatu zen jakin nahi du: "Gauza bat dira banderak eta malkoak, eta bestea ikustea zer pasa zen. Gudarien artean amorru handia geratu zen; niri haietako batek

esan zidan: 'nazkagarri horiek nola irabazi ziguten?'. Sentimendu hori belau-naldiz belaualdi igaro da, baina inork ez digu azaldu zer gertatu zen eta orain jendeak hori jakin nahi du". ■

KONEXIO Sanergetikoa

Donostian, Alessandro Di Masiren eskutik

Lau urte kanpoan eman ostean, Donostiara itzuliko da bisitan Alessandro Di Masi maisua, gaur egun modakoen dagoen bibrazio bidezko sendatze kuantikorako teknikan dinamizatzaileak trebatzeko. Honetan trebatzen den diplomadunak lizentzia bat jasoko du teknika berehala praktikan jarri ahal izateko. Egun osoz aritzeko lanbide moduan ikus dezake praktika hau, bere denda edo terapia zentroko jarduerari gehi diezaiok, edota denbora-tarte murriztagoa eskaini honi. Ikastaro ondo-rengo laguntza doakoa da gai guztietarako (enpresaren sortzea, aholku praktikoak, esperientziak partekatzeak), ikasle guztientzat eta gaztelaniaz (CIBE-Sanergia 972 53 05 82, 10etatik 20etara, astelehenetik larunbatera).

Eskuen ezarpen eta energia bidezko teknika hau ikasteko

Aski dira lau egun

2016ko martxoaren 12tik (larunbata) 15era (asteartea)

Irakasle lanetan Alessandro Di Masi (Bruselakoa, gaztelaniaz) & Daniel Berasategi (Donostiakoa, gaztelaniaz, euskaraz). Laguntzaile, koordinazio eta antolaketa lanetan Joana Planas (Gironakoa, gaztelaniaz, katalanez). "El Creador" best-seller liburu errebelatzailearen egilea da Alessandro. Egileak berak sinaturiko 18 ale ditugu gure esku. Nork deitu nahi du berea doan lortzeko?



(*) Sanergia bibrazio teknikaz osatutako lana da: Saioa, Sendatze lana, Sintonizazioa eta KONEXIO Sanergetikoa. Harrigarriak dira energiak dominatzeak Sanergiagileek lortzen dituzten emaitzak. Gaixotasunen sendatze espontaneoak kopuru handi bat "Meta-Sanergia" glosarioari esker izan dira (10 urteko lana), honen bidez sendatzaileak agerian uzten baititu 800 gaixotasunen arrazoi sentimental, emozional eta espiritualak. Gaixotasuna sortzen duten eragileak ezabatuz, gaixotasuna ezabatzen da.


Ikastaroari buruzko informazio guztia web honetan:

<http://sanergia.com/es/curso-menu.html>

Tel. 636072158 & 628889628

sanergia@yahoo.es | joanabuenasuerte@yahoo.es

CIBE, Bioenergia Ikerketa eta Informazio Zentroa
Sanergia Ikastegia – Harrera, Joana Planasen eskutik.



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

230 dokumental baino gehiago ikusgai

Zipotzak 30 urte
Egiaren hazia
Desobedientzia, elkartasunetik konpromisora
Azaroak 20, zorigaitzeko eguna
Bide berriak: elikadura burujabetza Euskal Herrian
Behobia-Donostia: 20 kilometro, mila istorio
Kondor Legioa
Gernika Batailoia. Askatasunaren ametsa 1945-2015
Armadillo
40/24 Txiki eta Otaegiren ondarea
Atzoko enborrak, gaurko ezpalak
Goazen gudari danok
Lurra, lana, izana
Batzarre
Ezkutuko amandrea
Arrakala -zirrikutu bat haitzean-
Gerorik ez da
Mugaritz BSO

Jon Salaberri
Eutsi edo hil
Trikifolia
Perretxikoak, basoetako altxorrak
Herriaren bihotza
GURS: Euskaldunen infernua 70 urteren ostean
Xabiertxo liburuak 90 urte
Dantzan: erabakitze eskubidearen aldeko lorpen feministak
Hilario Arbelaitz sua eta eskua
Malenkoniaren 3 gelak
Haziak - Herri Unibertsitateen loratzea
Ttipi ttpa
Korrika 1980 - 2007
Gu euskaldunak gara
SlackLine: Grabitateari Erronka
Baso ahaztuak
Badira bagara

...eta askoz gehiago

**Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:**

multimedia@argia.eus

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

ARGIA
EGUZKI
BIDEOAK *elkarlanean*



Imanol Murua Uria

“ETA-REN BERRI MUNDURA MADRILGO IKUSPEGITIK IRISTEN DA”

Ekarri armak liburua kaleratu du Imanol Murua Uria kazetariak (Zarautz, 1966). ETAREN borroka armatuaren amaiera kontatu du, oso modu garbi eta irakurgarrian. Berrogeitik gora elkarriketa egin, erakundeen barne dokumentuak eta kanpo erreferentziak erabili ditu.



Lander Arbelaiz Mitxelena

@larbelaiz

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

2007an ETAK erabaki zuen borroka luze baterako prestatu behar zuela ezker abertzaleak. Zenbateko garrantzia du Batasunatik ETari aurre egin izanak?

ETA su-etenean zegoela Barajasko atentatua eginez Loiolako bake prozesua amaitu izana, nolabait azken tanta izan zen, Otegik *Argien Aroa* liburuan esan izan duen bezala. Erabakigarria izan zen une batean iritzi horretan zeudenek “aski da” esatea, honaino iritsi gara. Ez zen Batasunako zuzendaritzan zegoen jendea bakarrik. Lehendik hori pentsatzen zuen askok barruan.

Zein dira gakoak eztabaida zatiketarik gabe amaitzeko?

“Borroka armatua amaitu egin behar da, baina denok batera amaitu behar dugu”, pentsatzen zuen askok. Denek batera hartu nahi horrek atzeratu du hainbeste erabaki hori. Lizarra-Garaziren amaiera ere mugarrria da, batzuek borroka armatua beste begi batzuekin ikusten hasi ziren. 2007-2011 prozesuan, lehentasunen artean jarri zuten zatiketarik ez izatea, baina ez zen lehentasun bakarra. Aurreko urteetan baino ausartago jokatu zuten eta ez zen zatiketarik izan.

Zatiketaren arriskua zenbaterainokoa zen?

Ikerketan ez naiz iritsi hori zehaztasunez neurtzera. Testigantzak jaso ditut eta

barne dokumentu batzuetan zatiketaren arriskuaz hitz egiten da. Horretan ibili zirenek esanda badakit beraiek behintzat zatiketaren arriskua benetakoa zela ikusi zutela 2009ko amaiera eta 2010eko udaberri bueltan. Garai horretan daude Bateraguneko atxilotetak, herriz herri egindako eztabaidak, *Zutik Euskal Herria...* azken hau adostasunez aurkeztu izanak amaitutzat eman zuen arriskua.

ETAREN baitan ere eztabaidak izan ziren...

Barne agirietan jaso da ETAREN zuzendaritzan krisi gogorra izan zutela 2007ko bukaeran eta 2008an. Konponezin hori ez zegoen guztiz lotuta ezker abertzalearen eztabaidarekin. Ez zen estrategia politiko-militarra amaitu ala ez. Eraginkortasun eta funtzionamendu kontuei lotuak ziren zuzendaritzaren barnean zeuden desadostasunak. 2008ko maiatzean barne krisi hori nolabait bukatu zen, Bordelen ETAREN zuzendaritzaren zati bat atxilotu baitzuten, Lopez Peña eta beste.

Liburuan iturri gisa darabilzun *Endgame For ETAn* xehetasun asko dago. Nor da hain iturri onak dituen Theresa Whitfield egilea?

Henri Dunant zentrokoekin kolaboratu izan du, garai batean aholkulari gisa aritu zen. Egun New Yorkeko unibertsitate batean dago. *Jakinen* gatazkari buruzko

“Borroka armatua amaitu egin behar zela, baina denek batera amaitu behar zutela pentsatzen zuen askok”

“EAJn ez da ikusten egungo ildoaren gaineko desadostasunik, ez da ikusten soberanistarik”



ikuspegi ezberdinak jasotzen zituen artikuluaren monografikoa argitaratu zuten, eta bertan akademiaren munduan errelatoaren borrokaz idatzi nuen. Ingelesezer atera den begiratuta, Whitfielden liburu hau nabarmentzen nuen. Ez du oihartzun berezirik izan Euskal Herrian, baina garrantzi handia du liburuak, ingelesez eta ukitu akademikoarekin, ETArek borroka armatuaren amaiera prozesua jorratzen baitu beste ikuspegi batetik, foko handia jarritz nazioarteko eragileetan. Kontakizuna gatazka politikot batean kontestualizatuz egiten du.

ETAr buruz ingelesez eta gaztelaniaz argitaratzen duten gehienek fenomeno terroristak huts gisa ikertzen dute, eta bibliografiak ikusiz gero, hori da nagusi. Madrillgo ikuspegitik barrena iristen da mundura ETArek berri.

Ekarri armak liburuan irakurri dugu lehen aldiz ETak IKri indarrak batzeko proposamena egin ziola. Ez zuten erantzunik jaso.

Hala da. ETak bat egiteko proposamena egin zion IKri eta dokumentu batean ETak dio inoiz ez zuela erantzun. IK ez zegoen erantzuteko moduan. IK-k ez zuen sekula bere bukaera jakinarazi. Filipe Bidartek esan zidan hori publikoki ez jakinaraztea akatsa izan zela, indar sinbolikoa izan zezakeelako. Hala ere, jasoa geratu da bi erakundeon artean ezinikusien garaia pasa zela. Hitzek ere kontrastatu dut hala izan zela.

Urkulluk esan zuen: "EAJk politikaren ari-keta zoritxarrekoa egin zuen 1998-1999n, abertzaleen arteko indar metaketarako politika egin behar diren argudioarekin PSOE eta PPrekin zubiak hautsiz". Iragarpena dirudi.

Bere ustez hanka sartzea izan zen Lizarrak Garazin abertzaleen arteko kontu horretan sartzea. Maria Antonia Iglesias kazetariak jaso zuen. EAJ barnean ez zuten entusiasmo bereziz bizi izan Lizarrak Garaziko prozesua, baina Urkullu ez zegoen oraingo arduretan. Eta Ibarretxeren apostuaz, beste klabe batzuetan, baina berdin. Esperientzia horiei buruzko balorazio kritikoetatik heldu da Urkullu eta bere taldea egungo posizio konformistara, ikuspegi abertzaleetik begiratuta. Autogobernua garatzeko Espainiako gobernuarekin bilateraltasuna, nazio forala... Gauden lekuan eta status honekin jarraitzeko apostua egiten duela dirudi.

Nola ikusten dituzu EAJ barneko indarrak?

Egibar eta Imazen arteko lehiaren ostean, bigarrenak hartu zuen gidaritza. Alderdia erdibitua zuen eta zatitzeko arriskua ere izan zuten, baina garbi zuen Imazek nora jo nahi zuen. Urkullu heldu zenean ez dakit nola lortu duen horrelako posturretan egotea, ikuspegi abertzaletik hain txepelak. EAJren pendulu historikoan, beti egon da autogobernu moderatu honen aldeko apustua, Urkullu eta Ortuzar hor daude. Harritzen nauena da penduluaren beste aldekoa ez ikustea. EAJn ez da ikusten horren gaineko desadostasunik, ez da ikusten soberanistarik.

Lau urte Madrilen PPren gehiengo absolutuarekin, estatutik euskal gatazka-ekin zerikusia duen dena blokeatuz, Urkullu Rajoyrengana adeitasun osoz proposamenak egitera joan zaionean mespretxuz erantzun izan dio... Hala ere, harreman bilateral horretan jarraitu nahi dute. Pixka bat harritzen nau.

Liburuan jaso zenuena, Zapateroren garaian Espainiako Estatua konprometitu zela ETArekin hainbat pauso ematera orain aste batzuk Rufi Etxeberriak azaldu du. Zergatik erabaki zuen PPK kontagailua zeron jartzea?

Beharrik ez zuelako. PPri edo Espainiako Gobernuari interesatu egin zaio hemen gatazkak jarraitzen duen irudia ematea. Beste mami bateko prozesu politikoei bidea tratatzen die. Presoen auziari heldu baliote eta konpromisoetan jaso zegoen bezala preso gaixok askatu, Norvegiara joan ETArekin hitz egitera presoen hurbiltze eta askatzea pixkana adosteko... ezker abertzalea bera edo mugimendu independentista indar zitekeen. PPK erraz egin zezakeen kalkulu hori...

... baina Zapaterok ere bai, ezta?

Bai, baina Zapaterok bere legegintzaldiaren barruan ETArekin borroka armatua amaitzeko aukera zeukan. Garai hartan sekretuan mantentzea zezakeela ikusi zuenez, sartzeari erabaki zuen. Rajoyri orde, lortuta eman zioten. Presoak, desarmea eta beste mila historia dauzka egun, estatu ikuspegitik begiratuta heldu beharrekoak. Baina ikuspegi alderdikoi eta epe laburrekotik begiratuta, interpretazio hori egin dute. Kataluniako arazoa hor daukate, baina Euskal Herrikoa behintzat ez, tratatutako daukate.



“PPri edo Espainiako Gobernuari interesatu egin zaie hemen gatazkak jarraitzen duen irudia ematea, beste mami bateko prozesu politikoei bidea tratatzen die”

“Ezker abertzale barnean orain kaleratu diren desadostasun hauek, 2009-2010 hartan egin ziren eztabaidetako desadostasunean dute jatorria”

2011ko urrian Brian Currinek zera esan zigan: “Ziur nago PPK jarrera eraikitzailea izango duela gobernura heltzean”. Honek zeozar jakingo zuen eta ez zuen asmatu.

Zapaterok oso denbora gutxi eduki arren, benetan espero zuten konpromisoetan jasotako neurri batzuk hartuko zituztela. Preso gaixok askatuko zi-

tuztela adibidez, eta ez zuten ezer egin. Adostua zegoen Zapateroren gobernuak hurrengoari konpromisoak pasako zizkiola. Rajoyk arrazoizko gauza esan zuen: albiste ona zela. Baina bere alderdiko belatzei ez zitzaizkien hitz hauek gustatu eta gainera joan zitzaizkion. Mayor Oreja eta haultzat ez baitzen albiste ona. Orain ikusten da konpromiso batzuk uste baino zehatzagoak zirela eta Rajoyk ezer ez egitea erabaki zuela.

Sortuk dio Espainiako gobernuari eskatuko diola Zapaterok hartutako konpromisoak betetzea. Nola ikusten duzu?

Ez dakit zein eraginkortasun eduki dezakeen orain eskatzeak orduan hitzartutako betetzeko. Ziurrenik ezagutzen ez ditugun klabe batzuk daude hor. Lotu hor esana hurrengo egunean Madrilen Auzitegi Nazionaleko akordio horrekin... baliteke ez dakigun zerbait egotea hor. Imaginatu PPrik gabeko gobernu berri bat dagoela. Hor dauden batzuek adierazi dute presoak hurbiltzeko jarrera. Mesede egiten du esateak hitzartuta dagoela? Beste batzuek ez dute aitzakia emango esateko txantxan erortzen ari direla?

Sortuk EPPKri bidalitako mezua gauza potoloa da?

Zerbaiten aurreko pausoa da, aldaketa baten iragarpena. Esaten du presoek neurri juridikoak jarraitu behar dituztela modu ausartean espetxe auzian au-

rrera pausoak lortzeko. Hori aurretik esana dago eta kolektiboak esan zuen modu mailakatuan ateratzearen ereduarekin bat zetorrela. Eskaerak egiten hasi ziren. Baina adierazi zutenean eman gabeko pauso juridiko batzuk eman behar dituztela, adierazten du aldebakarretasunaren bidetik marjen bat badagoela aitortzen duela Sortuk.

Kolektiboari bide horretan orain arte egin duena baino gehiago egiteko eskatzen dio. Terminologia politikoan gauzak nahiko ilunak izan ohi dira, eta ezker abertzalea ere ez da txarra opakoa izaten. Baina, zerbait iragartzen du. Gero dio espetxe fronte izatetik estrategia independentistan eragile izatera igaro behar dutela. Hori gero zertan maitzen den ikusi behar.

Eta Segurako Auzian lortutako akordioari zer traza hartzen diozu?

Ez dakit aurrekoarekin lotu daitekeen kausetan, baina ondorioetan bai. Tratatuta eta guztiz blokeatuta egon den gatazken ondorioen tren honetan, bi egunetan ikusi dugu zerbait mugitu dela. Batetik, Etxeberrriak aldaketa eskatu duelako, eta Madrilen ikusi dugulako orain arte eman ez den akordio eredu bat.

Bilduren legeztatzea lortzeko, EAJk Madrilen presio egin zuen. Egun, dispersioaren gaian nola ikusten duzu EAJ?

Bilduren legeztatzeari buruz EAJk izan zuen paperaz galdetu izan diedanean, ekarpen positibotzat saldu izan dute arrazoiz. Modu aktiboan saiatu zirela. Ezingo dute antzeko ezer esan sakabanaketaren gaian urte hauetan izan duten jarreraz. EAJk bere garaian sakabanaketarekin erantzukizun politiko handia izan zuen, diseinatu eta babestu egin zuelako besteekin batera. Gerora, jarrera aldatu du eta aurkako diskurtso argia izan du. Baina erabaki du hor ez duela ezer irabazteko. Politikariak guztian esplicitatzen dituzte beren posturak termino horietan, baina horrela da. "Hori ezker abertzalearen arazoa da, eta konpondu gabe duten bitartean beraiek kakaztuta egongo dira".

Ezker abertzale barruan estrategia aldatuak erresistentzia bat egon zen. Zertan da hori?

Nik 2007-2011 ikertu dut, ez egungo desadostasun hauek. Egungo eztabaidak

eta desadostasunak ez dira termino beretan ematen, baina nire ustez, orain garai hartan baino gehiago kanporatu diren desadostasun hauek, 2009-2010 hartan ezker abertzale barnean egin ziren eztabaidetako desadostasunetan dute jatorria. Horien eboluzioa dira neurri batean. Orduan desadostasuna zen estrategia politiko-militarra amaitu edo ez amaitu. Orain gehiago dira presoen auziari nola heldu, edo behintzat horretan kanporatu dira. Ziurrenik gatazkaren ondorioen arloan beste bide bat egin balitz eta presoen kontua ez balitz hain blokeatuta egon, ez ziren horrela kanporatuko. Garai hartan erabaki batzuek gehiengoz hartu ziren eta gutxiengoan geratu zirenek onartu egin zuten. Baina egun, presoen gaian frustrazioa handitu denean, ulergarria da orduan baino gehiago kanporatzea.

Zer lortu nahi izan zuen estatuak Batera-gune auziko kideak atxilotuta?

Galdera ona. Bi hipotesi daude. Batetik, zatiketa lortu nahi zuela; eta bestetik, ahuldu eta bazterrak trabatu. Garbi dago ez zutela nahi borroka armatuaren ondoren, mugimendu independentista ezkertiar indartsu bat ateratzea. Hori trabatzeko modu ezberdinak daude. Erabakia bera trabatuz edo urak nahasiz eta kontraesanak sortuz. Trabatze- ra joan ziren, ez nuke esango ETaren amaiera eragotzi nahi zutenik, baina bai, interesatzen zitzaizela ikuspegi alderdikoi batetik begiratuta, beren lege- gintzaldi barnean amaitzea. Hor esango zuten: "Amai dadila, baina ez beraiek nahi duten moduan; ongi ahulduta eta ahal bada, zatiketa lortuz, baina hori ez bada lortzen, ahulduz".

Zenbateraino eragin dezake guztien askatasunak gaur egungo ezker abertzalearen egoera delikatu honetan?

Rafa Diezek eta Arnaldo Otegi, baina batez ere bigarren honek, erreferente garbi bat emango diote ezker abertzaleari. EH Bildu Otegiaren zain dago, eta gainera, inhabilitazio hori gainditzeko modua egon daitekeenez, zirrikitu legalen bidez eta hauteskunde autonomikoen aurretik aterako denez, ikusiko dugu. Azken hauteskundeetan izandako emaitza txarren ondoren, eztabaida sakonagoak eduki edo faktore gehiago hartu beharko dituzte kontuan. Lider argi baten falta dago, eta Otegi leku hori bete dezake. ■



TALLERES
MITXELENA
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa - Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



Eskulanen
Etxea

Elkano kalea, 5 - 20004 Donostia
T. 943 420 205 / 688 662 858
info@casalabores.com
www.eskulanenetxea.com



IHES
Amets Arzallus eta Joxan Goikoetxea

Otsailak 13
larunbata 20:00



basterokulturgunea.blogspot.com.es | ☎ 943 303 540

ARROZTEGIA

ZEMENTUAK DESADOSTASUNA
EKARRI DU BAZTANERA

Azken hilabeteetan zeresan handia ematen ari da Lekarozko Aroztegia proiektu urbanistikoa, Baztanen. Nafarroako Gobernuan ere eztabaida sortu du egitasmoak: Geroa Bai da proiektuaren bultzatzaile bakarra aldaketaren indarren artean; beste alderdiak aurka agertu dira.



Garazi Zabaleta

@tirikitran

“226 etxebizitzako urbanizazioa, nazioarteko mailako 135 gelako hotela, goi mailako sukaldaritza-jatetxea eta bederatzi zuloko golf zelaia, guztia Baztango larre berdeak koroatzeko. Paisaia idilikoa kokatuko da Palacio de Arozteguia proiektua, bidaiatzeko alternatiba gisa ‘turismo lasaia’ eskainiz. 46 hektarea golfean jolas-tu, Michelin gida harritzeko moduko platerak dastatu edota lau izarreko hotelean ostatu hartu nahi duenarentzat”.

Aurreko paragrafoa ez da Lekarozko Aroztegia proiektuaren sustatzaileek ateratako publizitate orri batekoa, Nafarroako egunkari garrantzitsuenetako batek egitasmoaren inguruan argitaratutako erreportajea baizik. Baina benetan, hain polita al da dena? Baztanen izan gara, eta egitasmoaren aurkako jendearekin topo egitea hain zaila ere ez dela sumatu dugu.

Hasieratik sekretupean

Hotela eta spa egiteko ideia lehenagotik bazetorren ere, 2001ean Baztango familia bateko semeek Aroztegia erosi zutenean hasi zen proiektua gauzatzen. Inguruko bide publiko batzuk mozten hasi zirenean ohartu ziren Lekarozko herritarrek zerbait gertatzen ari zela, eta enpresak onartu ziren bertan hotel bat egiteko asmoa zuela.

2008 arte, ordea, ez zen egungo urbanizazio proiekturik agertu. Urte hartan,

Palacio de Arozteguia S.L. enpresa sortu eta aurreko enpresaren helburu soziala aldatu egin zuten: lehenago helburu turistikoa bazuen, enpresa berriarekin proiektu urbanistikoa sartu zen. Egungo egitasmoaren lehen bertsioa izan zen hura: 252 luxuzko etxebizitzako urbanizazioa –egun 226 dira–, lau izarreko spa-hotela eta golf zelaia aurrakusten ziren bertan.

“Jokaldia lurren birkalifikatzea izan da”

2007 eta 2011 bitartean NaBaik eta UPNk osatutako udal gobernuak lurren birkalifikatze ugari egin zituela azaldu dute ‘Aroztegia... Eta Gero Zer?’ plataformako kideek, horietako batzuk “nahiko zalantzarriak”. Kasu batzuetan egungo Aroztegiako proiektuaren sustatzaileak zeuden atzean. “Udal hartako hirigintza zinegotziaren ‘oso laguna’ zen proiektuaren bultzatzaile nagusietako bat”, esan digu Garbiñe Elizegi plataformako kideak.

Aroztegiaren aurkakoei argi dute lurren birkalifikatzea izan dela bultzatzaileen jokaldi nagusia: 2008an, “operazio espekulatiboen tren” pasatzen ari zen momentuan hasi ziren urbanizazio proiektuarekin. “Lurrak birkalifikatzeko interes handia zuen enpresak, ezer gehiago egin gabe irabaziak lortu dituelako”.

Momentu hartan enpresa saiatu zen proiektua Udalaz Gaiindiko Plan Sekto-

rial (UGPS) gisa tramitatzen Nafarroako Gobernuan, baina hark onartu ez eta 2009an egitasmoa Baztango Udalean sartu zuten, lur-eremu ez urbanizagarrien birkalifikatzea eskatuz. Lekarozko galdeketa egin zuten herritarrei birkalifikatze horren alde zeuden galdetuz, eta herria argi azaldu zen aurka. Baztango orduko Udalak, erabakia errespetatu ordez, proiektua onartu egin zuen. Orduan sortu zuten Aroztegiaren aurkako plataforma, eta enpresa auzitara eramane zuten.

2013an Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak plataformaren helegitea onartu eta atzera bota zuen lurren birkalifikatzea, horietako eremu batek sute bat jasan zuelako eta ondorioz lurren erabilera ezin zelako aldatu 30 urtean. Enpresak segituan adierazi zuen ez zuela atzera egingo, sententziak zortzi hektareari soilik eragiten ziolako.

Baztango hamaseigarren herria altxatzeko adreilu festa

Plataformako Itzi Torresek argi azaldu du zein den proiektuaren izaera: “Hau ez da proiektu turistikoa, askotan saldu duten bezala. Hau proiektu urbanistikoa da”. Horren erakusgarri da, adibidez, Baztango Udalak aurreko legealdian enpresari etxebizitzarik gabeko proiektu turistikoa garatzea proposatu zionean hark emandako ezezkoa.

Proiektu urbanistikoaren izaera espekulatzailea salatzea eta garapen ereduaren gainean eztabaida bultzatzea izan du helburu plataformak urteetan. “Zertara dator 340 biztanleko herri batera 226 etxebizitzako urbanizazioa, biztanle kopurua bikoizteko adina? Nor etorriko da hara bizitzera? Nola aldatuko ditu horrek soziolinguistikoki herria eta bailara? Zergatik hamaseigarren herria Baztanen 800 etxe huts baino gehiago daudenean?”.

Kalteak bistakoak dira plataformako kideen ustez, baita ingurumenari dagozkionak ere: “Paisaian eragingo lukeen inpaktuaz gain, ikusi beharko litzateke golf zelaietarako pestizidek inguruko lurretan nola eragingo luketen”, dio Agurtzane Orbegozo plataformako kideak.

2015eko hauteskundeetarako bi egun falta zirela onartu zuen UPNk UGPSa. Abenduaren 30ean, berriz, gobernu berriak Geroa Bairen aldebakartasunarekin eta Baztango Batzar Nagusiaren eta Lekarozko herriaren errekerimendua baztertuta, UGPSa babestea erabaki zuen. “Erabaki teknikoia dela diote, baina benetan erabaki politikoa da”, azaldu dute plataformako kideek. “Ezin da ulertu ‘aldaketaren’ alderdiak erregimen zaharraren moldeak erabiltzea, erabakitze eskubidearen alde dagoela dioenean”. Beste zenbait herritan Geroa Bai antzeko proiektuen aurka azaldu dela ere gogorazi dute, beren argudio berak erabilita.

Herri galdeketa eskatu dute

Azken prentsurrekoan Baztanen herri galdeketa egitea proposatu du plataformak. Proiektua geldiaraztea posible dela garbi dute, baina horretarako aldaketaren gobernuko beste alderdiek, posizionatzeaz haratago, “egoera benetan estutu beharko dutela” ere bai. “Orain arte ez diote gaiari duen garrantzia eman”, azpimarratu dute. Geroa Baik, bere aldetik, garbi esan du hasieratik proiektuaren alde dagoela. Haien hitzetan, “langabeziak hainbeste izorratu duen lurraldean lanpostuak sortzeko, turismo alternatiboa sustatzeko eta ekonomia pizteko onuragarria” izanen da egitasmoa, eta ez dute herri galdeketa egiteko asmorik azaldu. “Desadostasunei inposiziorik gabe aurre egiteko tresna demokratikoak badaude”, dio plataformak. Ikusiko da Geroa Baik zer erantzuten dion. ■



AROTEGIA... ETA GERO ZER?



Aroztegia jauregia, atzean Lekaroz.

JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

» **‘AROTEGIA... ETA GERO ZER?’**
PLATAFORMA: “Zertara dator 340 biztanleko herri batera 226 etxebizitzako urbanizazioa? Horrek nola aldatuko ditu soziolinguistikoki herria eta bailara?”

» Geroa Bairen esanetan, langabeziak hainbeste izorratu duen lurraldean ekonomia pizteko onuragarria izango da proiektua

NI PALETO? ZU BAI KOSMOPALETOA!

Komikian hiru pertsonaia. Euskara gutxien duen enegarrena da bat. Bigarrena, feminista eta euskaldun ahaldundua da. Hirugarrenak euskararen aurkako diskurtsoak barneratuta dauzka, euskalduna eta euskaltzalea izan arren. Feminista ahaldunduak eskua botako dio lagunari. Mikel Ozaitak garatu du ahalduntzearen inguruko diskurtsoa eta Ainara Azpiaz Axpik komikira ekarri du.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Mikel Ozaitaren (Euskaltzaleen Topaguneko Kohesio eta Sentsibilizazio arduraduna) ustez, euskararen aurkako diskurtsoak lantzen epel eta apal gabilta, diskurtsoei aurre egitea ez bururatzearino. Feminismoak berriz, kontzeptualizazioan eta praktiketan dituen proposamenekin, batez ere euskaltzale belaunaldi berriak aktibatu daitezkeela iruditzen zaio, umorez eta inteligentziaz lan eginez gero.

Machirulo/kosmopaleto, puta/cashe-ro, euskararen diskurtsoei aurre egiteko hainbat zertzelada Mugimendu Feministaren teoria eta praktiken iturrietatik lana egin du eta Axi marrazkilariari eskatu dio komikira ekartzeko. “Erreferente feministak ekarpen freskoa egin dio ahaldundu gabe dagoen lagun euskaldunari”, dio Axpik. Ozaitak naturalizat hartu ohi dugun zapalkuntza azpimarratu du, nola ez garen ohartzen zapalduta gaudela, baina nola –komikian behintzat– ahalduntze prozesua egin dezakegun.

Feminismoaren aurkako diskurtsoak erabiltzen dituzten hainbat kontzeptu bereganatu ditu (konnotazio negatiboak positibo bihurtuz) mugimendu feministak, eta komiki honetan ere halako saiakera bat egin da. Feminismoak, adibidez, erasoak eta erasotzaileak identifikatzeko eta salatzeke *machirulo* kontzeptua erabiltzen du. *Put*a terminoa ere bere egin du, puta deitzen dio bere buruari baldin eta puta izatea sexualki askea eta independentea izatea bada.

Antzeko ariketa egiten hasita, Ozaitak eta Axpik komikiko elebakarrari kosmopaleto deitzea proposatzen digute. Elebakarraren ustez, bera kosmopolita da, gutxienekoa den hizkuntza, euskara, ez du hitz egiten, eta aldiz, prestigio-ko hizkuntza darabil ahoan. Ozaita eta Axpiren iritziz ordea, *paleto* bat baino ez da. Bestalde, euskal hiztunen aurka gaitzespenez erabiltzen duten *cashe-ro* terminoari buelta eman ahal diogu: baserritarrak gara, munduko langileen %70 baserritarrak dira, ingurumena, naturaren aniztasuna zaintzen dugunak gara.

Euskaraz hitz egitea= hizkuntza gatazka

Euskararen aurkako diskurtsoei inteligentziaz, umorez eta sormenez erantzun behar diegula diote biek. Erdaldunak limurtu eta erakarri behar diren uste-rik gatozela esan diegu. Axpik hala dio: “Limurtzea eta erakartzea ez daude soberan, baina egoera bakoitzari bere ize-na eman behar zaio”. Ados dago Ozaita, hartzailearen arabera diskurtsoa egokitu behar dela dio.

Hizkuntza gatazkaz ondoko hausnarketa egin du Ozaitak: gatazka egoerak daude eta gatazka mahai gainean jarri behar da. Emakumeek eraldaketarako edo botere asimetriak azaleratzeko gorpuzta erabiltzen dute. Euskal hiztunok hitza daukagu, hau da, euskaraz hitz egitea; beraz, toki jakinetan euskaraz hitz eginda, hizkuntza-gatazka mahai gai-

nean jartzen dugu. Adibide bat jarriko dut. Egiten ari naizen masterreko ikasgelan euskaraz egiten badut, antzematen dut hizkuntza gatazka agerian jartzen dudala. Ikasle batzuk Espainiako Estatu-koak dira. Eta kontu, feministak dira.

Zenbait egoeratan euskaraz egitea hutsak gauzak alda ditzake, hain erraza eta hain zaila da era berean. Irabazteko eta galtzeko izango duzu euskaraz egiten baduzu. Euskaraz ari bazara ikasgelan eta irakaslea badator, boterea irakasleak du. Epaketa badaukazu eta akusatua bazara, eta euskaraz egiten baduzu, galtzeko aukera gehiago dituzu. Gure borroka-tresna hitza da. Zenbait tokitan legeak babesten gaitu, esate baterako Gipuzkoan. Agian medikuarenera joan behar dugu euskararen txantxangorriaren pina (Eusko Jaurilaritzak euskara sustatzeko egindako azken kanpaina) jarrita eta medikuari esango diogu bere nagusiak esan digula jartzeko. “Ni euskaraz hitz egiten ari naiz, besterik gabe”.

Euskaltzaleentzako jabekuntza eskolak

Mikel Ozaitak, bere lanean, euskaltzaleen jabekuntza eskolak sortzea proposatzen du. Kafe antzokiak ditu gogoan, non euskaldunak elkartzen diren, kultura zapaldu bateko hiztunak. Kafe antzokian ordea, euskaldunak ikusle pasibo direla uste du, gainera inbertsio handia eskatzen dute. Ez du uste euskara elkarteak ere euskaltzaleak aktibatzeke egituratuta daudenik.

MACHIRULO/KOSMOPALETO, PUTA/ CASHERO



"Machirulo/kosmopaleto, puta/cashero, euskararen diskurtsoei aurre egiteko hainbat zertzelada Mugimendu Feministaren teoria eta praktiken iturrietatik". Lan hori aurkeztu zuen Mikel Ozaitak urtarilaren 21ean Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako Topaldian. Hitzaldiak Axpiren komikia izan zuen lagun: "Hitz potoloetara oso zaletuta gaude, eta gauzak soilago azaldu daitezke, adibidez komikiaren bidez".

Feminismora egingo du jauzi eta emakumeen txokoak datozkio gogora, Basauriko Marienea, Donostiako Emakumeen Etxea eta Hernanin sortze bidean dena aipatu ditu. Gune horietan mugimenduen eta erakunde publikoen arteko lankidetzat dago, baina ez da hori Ozaitaren arreta gehien piztu duena, baizik eta txoko horietan hausnarketa bultzatzen dela, ekintzara bideratuta daudela, finean aktibismoa sustatzen dutela. Euskal hiztunentzat ere, aktibaziorako gune irekiak irudikatzen ditu. Euskaltzaleentzat, eta agian, hemen bizi diren beste jatorri batzuetako hiztunentzat. Hizkuntzen etxea izan dadila, beti ere kohesio hizkuntza euskara dela.

Axpiri eta Ozaitari galdetu diegu komikiaz gain ea euskaltzaleen aktibaziorako bestelako zein ekintza mota duten go-goan. Axpik ilustratzailea dela aldarrikatu du eta performanceak Lutxo Egia-rentzat utzi ditu. Alabaina, komikiaren inguruan egitasmoren bat garatuko baltz parte hartuko lukeela dio. Dena dela, galdetu du ea Donostiako Egia auzoan egin duten kanpaina ez ote den performancea: urtariletik martxora elkarrekin eta norbanakoek konpromisoa hartu dute astebetez euskara hutsean bizitzeko ahalegina egiteko.

Ozaitak aipatu du Soraluzen euskaltzaleak ahalduntzeko eskola moduko



Ainara Azpiazu "Axi" k eta Mikel Ozaitak betaurreko berdinak partekatu dituzte euskararen aurkako diskurtsoei aurre egiteko estrategia umoretsuak bilatzeko.

batean biltzen hastekoak direla. Gaineratu du bestelako gizarte mugimenduekin, bestelako arte adierazpenekin, harremanetan jartzen asmatu behar dela, orain arte bakoitza berean ibili delako, euskaldunak euskaldunentzat aritu direlako, eta lubakietatik ateratzeko garaia dela. ■

BABESLEA: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

www.bizkaia.eus

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

Espainiak 1-Iranek 3



Jakoba Errekondo

Sona gehien duen azafraia, *Crocus sativus*, espainiarra da. Mundu guztiak azafrai espainiarra saltzen du. Munduan ekoizten den azafrai ugari Espainiara joaten da, eta bertakoa balitz bezala saltzen da. Ikaragarritzko lapurreta dago antolatua. Garestia da, oso garestia, eta iruzurra latza.

Espainian Mantxan, babestutako jatorrizko izendapenen barruan, eta Aragoian, azken hamabost urteetan, batez beste, 2.800en bat kilo ekoitzi ziren. Ekoizpen txikia badirudi ere, ez da txantxetakoa: kilo bete azafrai sortzeko milioi laurden lore bildu behar da. Lan txatzua da: lorearen barruko lorexakiak edo estigmak dira espezia, eta, lorea ttikia izanik, hiru piru hari horiek kentzea, seko gogaikarria.

Espainiar azafraia izenarekin 36.000 kilo eskas esportatu da hamabost urte horietan. Eta, non arraiotik sortu dira bertan sortu gabeko beste 33.200 kilo horiek? Poetak dioten eran, tona horiek ez dira, ez alazankoa, baratze-saguzarraren eguerdiko doministikua! Tona pila hori, batez ere, Marokotik eta Irandik dator, merke zuhurrean egina. Batez ere, Iran-



Irango azafrai biltzaileak.

SAFAR DANESHVAR-CC BY SA

dik; ez alferrik, bera da munduko ekoizle nagusia.

Bada, aurkeztu berri dute azafrai "immigrantea" antzeman eta ezagutzeko teknika bat. Lorearen pirutxoak bildu ahala ahal den azkarrena lehortzea komeni da, alferrik galdu gabe luze iraun dezan. Horretarako toki bakoitzean teknika desberdinak erabiltzen dira. Espainian, agidanean, bahe batzuetan za-

baldu eta hura suaren edo txingarren aldamenean jartzen dute 70 °C inguruan. Horrek, itxuraz, oxidazio berezi batzuk eragiten dizkio, eta nabarmen azalduko du azafraiaren jatorria.

Oxidazioa gorabehera, patrikak igarriko dio jatorriari: espainiarra esku-ratzeko, gramo bakar bat hiru euro ordaindu beharko dituzu. Irandarra, aldiz, hiru euro horiekin hiru gramo dituzu. ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Kaixo Jakoba. Orain dela zapatu batzuk irratan esan zenuen oiloen zorriei kontra egiten dion landare bat dagoela. Zein da landare horren izena eta zelan erabili behar da?

**Maria Jose Iturralde
(Abadiño)**

Kaixo Maria Jose. Aipatu nuen landarea bortusaia da (*Ruta graveolens*). Izen asko du euskaraz: boskoitza, moskotxa, erruda, albortusaia... Etxekoa dugun adierazle garbia. Etxe inguruan sugeak uxatzeko eta oilategian zorririk ez izate-



Bortusaia (*Ruta graveolens*).

ko. Bere usaina da eraginkorra: usaina edo kiratsa; zorrientzat, agidanean, kiratsa.

Zorriak kentzeko, arrautzak erruten dituzten habietan haren hosto lehorrak nahasi inaurkinari; lan horretan laguntzen dute garo arruntak (*Pteridium aquilinum*), milorriak (*Achillea millefolium*) eta tabakoak (*Nicotiana tabacum*). Koten inguruan ere zabaldu, oiloak kotaratzen direnean bere babesean egoteko. Garbitasunerako errausak jartzen zaizkio oilo jendea-

ri. Horrekin ere landare lehorra nahasi. Bortusaia landatzeko asmorik baduzu toki eguzkitsua aukeratu. Lur harro aberatsa du gustuko. Izotz arruntak ez du erreko eta lehorteari ederki eusten dio.

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea · [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



IRAKURLEAK LIBURUAZ MINTZO

Joanes Etxebarria:

“Baratzean esperientzia zalea naiz ekoizpen zalea baino”

Baratzea egin nuen lehen aldian ez nuen aski kontuan hartu agorrilean eguzkiak lehenik tomateak joko zituela eta haien itzala besterik ez zutela jasoko gibelesko piperrek. Lehen baratzerako banakien aldiz, gurasoei gertatu zitzaielako, piper mingarrenak goxoen ondoan landatuz gero denak mingartu zitezkeela. Bigarren baratzerako lagun anitzen baratzak kontuan hartu nituen nirea antolatzeke, eta interneten gauza andana bat ikasi nituen. Permakulturari printzipio batzuk hartu nizkion, baina esperientzia gosez sobera landare elkartu eremu be- rean eta txikienek sufritu zuten.

Baratzea ez dut aspalditik egiten, bai- na baratzezain gehienek bezainbat den- bora, interesa eta lana dedikatzen diot. Gehien asetzen nauena, bazkaz gain, eragiten didan harridura da. Horregatik naiz esperientzia zalea ekoizpen zalea baino gehiago.

Baina esperientzia, edo auzoko denek egiten dutenetik baztertzeko, frantsese- tik edan dut interneten, eta han horka ibili naiz informazioak biltzen, konpara- tzen, saiatzeko, egiaztatzen. Liburu honi esker pantaila aitzinean iraganen ez du- dan denbora kanpoan iraganen dut, es- kuak lurrean.

HIZTEGIA:

Bidali “Bizi Baratzea” liburuan ageri diren landare, lan, tresna eta abar izendatzeko zuenean erabiltzen dituzuen hitzak (mandio@zerain.eus). Guztion artean hiztegi aberatsena elikatuko dugu.

BIDEOA:

“Bizi Baratzea” liburuaz Jakoba Errekondok Ainhize-Monjolosen emandako hitzaldiaren bideoa ikusgai www.argia.eus/multimedia helbidean.

Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIA erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzurekin jaso dezakezu liburua. Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusitako goiko zutabearen non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak: 943 371 545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus

Zure saltokian salgai jartzeko, jarri harremanetan gurekin.

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIK

Hauek dira ondorengo hitzorduek:

Otsailak 10

Bilbo

Ekoetxean (Pilota kalea, 5), 19:00etan.

Otsailak 16

Goiatz

Dendale ostatuan, 18:30ean.

Otsailak 18

Iruñea

Civovox Condestable Jauregian, 19:30ean. Nafar Ateneoak eta Iruñeko Udalak antolatuta.

Otsailak 23

Anoeta

Baratze Parkean, 18:00etan. Ondoren Mikelasagasti auditorioan.

Otsailak 25

Zaldibar

18:30ean, lekua zehazteke. Durangaldeko Berbalagunek antolatuta.

Otsailak 27

Erratzu

Etxelebertzeko txokoa, 11:00etan. Hazien Egunaren baitan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratzeko duzu

sustapena@argia.com

☎ 943 371 545

NEW YORK ALDATU ZUEN **ELURTEA**



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

New York, 1888ko martxoaren 11tik 14ra. Elur-bisuts ikaragarriak ezustean harrapatu zuen hiria. Izan ere, bizpahiru egun lehenago bertakoak udaberri aurreratuak ekarritako tenperatura epelez gozatzen hasiak ziren.

Egun horietan metro eta erdiko elur geruzak inkomunikatuta utzi zuen Manhattan. Brooklyneko zubi berria berehala itxi zuten eta ferryek ez zuten zerbitzurik eman; New Jerseytik Hudson ibaiko ur izoztuen gainean oinez abiatutako gutxi batzuek soilik lortu zuten uhartera iristea. 130 km/h-ko haizeek egoera okertu zuten, besteak beste hiriko kaleetako elektrizitate eta telefono hari amarauna botata. Asteak behar izan zituen hiriak bere onera etortzeko. New Yorkeko suhiltzaileen arabera, piztutako suteek garaiko 25 milioi dolarreko galera eragin zuten; orotara izandako kalte materialak ezin izan zituzten kalkulatu. Inguru osoan 400 hildako izan ziren, erdia New Yorken.

Atertu baino lehen eta, beraz, benetako ondorioak jakin baino lehen ere, martxoaren 13an, *The New York Times* egunkariak “hiriak ezagutu duen ekaitzik larriena” zela esan zuen. Komunikabideak gogor kritikatu zituen hiriko azpiegiturak, baita irtenbidea eman ere: “Zirkulazio oso azkarra ahalbidetuko duen eta ekaitzek etengo ez duten garraio-sistema planifikatu eta eraiki



Ezkerrean, elurrak hartutako altuera erakusten duen irudia. Eskuinean, hari elektriko izoztuak, haize bolada bortitz batek noiz botako zain. Elurteak goitik behera aldatu zituen New Yorkeko garraio eta elektrizitate sistemak.

MCNY

behar da lehenbailehen, eta hari elektriko guztiak (telegrafoarenak, telefonoarenak, suteen aurkako alarmenak eta argiteriarenak) lurpean jarri behar dira atzerapenik gabe”.

Ekaitza amaituta, udalak lurpeko tren sistema eraikitzeke plana diseinatzearekin zion. Plana 1894an osatu zuten eta 1900. urtean hasi ziren New Yorkeko metroa eraikitzen. Ordurako, egunkariaren aholkua aintzat hartuta, hariteria lur azpian sartuta zegoen.

Martxoaren 13an, egun berean, beraz, hiriko beste agerkari batek, *New York Sun*-ek ere bisutsa zuen hizpide, baina beste ikuspegi batetik: “Bizibidea lortzeko kanpoan lan egiten duten emakume gutxik lortu dute lantokira iristea. Ziur aski, gonazpikoen historia osoan

ez da sekula hain agerian geratu jantzi horien diseinatzailearen artaburukeria”. Eta soineko luze, astun, deserosoen erabiltzaileen hainbat testigantza jasotzen zituen: emakume batek zioen gonak gerri parean jasota lortu zuela lantokira iristea; beste batek, etxadi erdia ibili eta etxera itzuli behar izan zuela; hirugarren bat kalean erreskatatu behar izan zuten, gonazpiko hezeak izotzarekin bat eginda, ez atzera ez aurrera geratu ondoren.

Ziurrenik *Sunek* ez zuen *Timesek* adinako eraginik izan, eta beste faktore askok eragin zuten 1890eko hamarkadan soineko eta gona labur eta erosoagoen moda nagusitzea. Baina elurte hark, trenetaz eta kableez gain, gonazpikoak lurperatzen ere lagundu zuen. ■

Ondare historikoa suntsitzearen mozkinak

Zergatik ari da Estatu Islamiarra (EI) Siria eta Irakeko Antzinaroko ondarea lehertzen? Hauxe da Joanna Farchakh arkeologo libanoar-frantziarraren erantzuna: Elk nazioarteko eroslearen artean eskaera handia duten objektuak saltzen ditu, estatuak, harrizko aurpegiak eta freskoak. Dirua jaso, piezak entregatu eta artelanak zeuden eraikinak lehe-

rrarazten ditu; horrela, arpilatzearen frogak suntsitzen ditu.

Ondare arkeologikoa makineria astunaz eta oso azkar suntsitzen hasi ziren. Orain askoz mantoago ari dira. “Hutsegiteetatik ikasi zuten”, Farchakhen esanetan, “suntsitzeak zenbat eta luzeago jo, orduan eta gehiago igoko dira prezioak nazioarteko merkatuetan”. Hala, EI milaka milioi dolar

lortzen ari da antzinako ondarea saldu eta nazioarteko erosleak gogo onez ari dira arpilatutakoa erosten. Elk, poltsikoak betetzeaz gain, memoria suntsitu nahi omen du eta, bide batez, suntsiketaren dramatizazioa saltzen digu. Mendebaldean sumindu egiten da suntsiketaren irudiak ikustean, eta, bitartean, “Palmirako piezak dagoeneko Londresen daude salgai”. ■



AKTUALITATEAREN GAKOAK

Aktualitatea patxadaz ere irakur daiteke



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Zuri ere iritsi zaizu ale berezi bat etxera? Niri bai, eta ez dut oso ondo harraipen nondik doazen tiroak... *Aktualitatearen Gakoak*... 2016ko urtarrila... Hilabetez gaien bilduma egiten hasi dira orain ARGIA? A! Itxaron itxaron, barruan eskutitz bat du: "ARGIAko kide estimatua, bla bla bla, *Larrun* eta astekaria berri genituen, blo, blo, blo, *Euskal Kulturaren Urtekaria*, bli, bli, bli...". Aaa bale bale, urtekari berritua da! Bazen garaia, ARGIAko hauek zer pentsatzen zuten bada, *Euskal Kulturaren Urtekaria* horrek betiko iraungo ziela ala?

Baina onartu beharra daukat, eraberritzen hasita aldaketa handia egin dute. Lehen urtekaria irekitzen zuten bi kronika sakonek, eta orain horrela-ko zortzik hartzen dute protagonismoa liburuxkaren lehen herenean. Kulturaren, hezkuntzaren eta hizkuntzaren gaiak alde batera utzi gabe, ARGIAk egunero lantzen dituen beste zenbait gai eta balore gehitu nahi izan dizkio- te urtekariari: ingurumena, feminismoa, herri mugimenduak, gizarte gaiak,

ekonomia, politika, kirola... Eta atal honetan 2015ean zehar gertatu diren eta zer esana emango duten aktualitateko gaien gakoak azaldu nahi dizkigute, irakurketa patxadatsu eta sakon bat eskaini. Zortzi kronika orotara.

"Joerak" dira tarteko atala, liburuxkaren bigarren herenean. Aurreko zatiko kronikena baino modu laburragoan, baina lehen planora ekarri edo iritsiko diren gaiak mahai-gainean jartzen ahalgindu dira, datozen hilabeteetako tendentziak erakutsi nahirik-edo. Hamabi joera, Joseba Larratxeren ilustrazioekin.

Eta nola ez, "ARGIAren onenak". Bilduma ederra jasotzen du urtekariak azken zatian. Egunero webean eta astero pape- rean argitaratzen den guztia irakurtzea zaila da, eta urteko erreportaje, artikulua eta elkarrizketa esanguratsuenak biltzearen hautua egin da. Denborari eus- ten diote, eta tarte dugunean besaul- kian eseri eta berreskuratzekoak dira.

Papera klasiko bat baino gehiago dela sinesten dugunontzat apalategian izate- ko modukoa! ■

"ARGIA Sariak dira urteko egunik politena. Euskal kulturako jende langilea biltzen delako bertan"

Imanol Lazkano,
Bertsolaria



Europako parlamentuan

GUE Europarlamentari taldean dagoen EH Bilduk gonbidatuta, Ekonomia So- zial Eraldatzailearen I. Foroan izan zen ARGIA, Bruselan, Euskal Herriko beste hainbat eragilerekin batera. Harreman sarea lantzeko ere balio izan zuen bi- daiak. Urko Apaolazak *Angelu Itsua* blo- gean egin zuen zuzeneko jarraipenean irakur dezakezu jardunaldien edukia .

Txioak urtekari berrituaz



Arte eskola berria bat-batean itxi dute

XABIER GANTZARAIN: “KALOISTRA IXTEA ERABAKITA ZEUKATEN GUREKIN HITZ EGITERAKO”

Orain urtebete jarri zuten martxan Kalostra Arte Eskola, Artelekutik gelditzen zena hartu eta artisten egungo eskakizunekin bat zetorren zerbait sortu nahian. Gipuzkoako Foru Aldundian agintea aldatzean, ordea, proiektua geldiarazi zuten, “Tabakalerarekin indarrak ez bikoizteko”. Prozesua errepasatu dugu bertako koordinatzaile izandako Xabier Gantzarainekin.



Kepa Matxain
@kmatxain

“Ezer ez da monolitikoa, errealtatea po-lidrikoa da”. Zer esanik ez auzia denean norbanakoak, instituzioak, artistak, kul-turguneak eta abarrak biltzen dituen katramila baten errelatoa osatzea. Ongi daki Xabier Gantzarainek hori, eta Ka-lostran gertatu denari buruz beretik ari-tu bada ere, bereziki saiatu da prozesua bere konplexutasunean kontatzen. Ziur asko, ohi moduan, bertsio ofizial lauei aurre egiteko modu bakarra delako ña-bardurak azpimarratzea.

Idazten duzu ‘Kalostra’ Googlen, eta arre-ta pizten dute lehen bi albisteek. Batak dio: “Arteleku ordezkatu du Kalostrak, ar-tistentzako eskola esperimental berriak”. Besteak, berriz: “Foru Aldundiak Kalostra geldiarazi du, Tabakalerarekin indarrak ez bikoizteko”. Bi albisteen artean, be-deratziz hilabete eskas. Zergatik izan du halako bizitza laburra?

Hasteko, Kalostraren kultur ereduak talka egiten duelako egungo agintari-ek daukatenarekin. Bestetik, hor dago joko politikoa, alderdien arteko borroka: proiektu bat Bilduk martxan jarritakoa bada, hurrena datorrenak geldiarazi

egiten du. Eta hirugarrenik, diru kon-tuak ere aipatu dituzte, eta, noski, hor-tik ere izango zuen beraientzat. Bene-tan politika hor dago: batek erabakitzen duenean ixtea barrura begira harrobia sortuz lan egiten duen eskola bat, eta hor gastatu beharrean gauza ikusgarria-goetan gastatzea, ba tira, berak erabaki-ko du zerk ematen dion etekin gehiago. Kurtso bakarra egin genuen. Kurioso-e-na da, hala ere, Kalostra hain denbora gutxian desagertu dela. Artelekuk luze iraun zuen eta erreferentzia bilakatu zen, berriki irekitako Tabakalera erre-ferentzia da jada, eta urtebeteko gauza txiki bat erabat desagertu da, ez dago inoren iruditerian.

Egin dezagun atzera. Zer testuingurutan sortu zen Kalostra?

Kalostraren sorrera baldintzatu zuen Arteleku zegoen eraikinaren egoerak. Arteleku Txomin-Enean zegoen. Donos-tiako Udalak abisatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari hirigintza-plan bat zu-tela auzo hartako uholdeak saihesteko, eta Arteleku botatzeko asmoa zeukate-la. Era berean, hor zegoen Foru Aldun-

diak garai hartan Artelekuren inguruan zeukan iritzia –orduko kultur diputatu Ikerne Badiolak galdu antzera ikusten zuen Arteleku, “norabide argirik gabe”–. Baina ez da ahaztu behar testuingu-ru hori erabat aldatu zela Tabakalera proiektua azaldu zenetik. Azken urtee-tan mamu bat izan zen Tabakalera Arte-lekurentzat. Mamua diot, oraindik egi-karitu gabeko ideia batek eragin zuzena zeukalako proiektu hartan, espektro batek bezala. Orduko leloa zen: “Arte-leku izango da Tabakaleraren bihotza”. Baldintza horiek guztiek eragin zuten 2014an Foru Aldundiak erabakitzea Ar-teleku itxi beharra zegoela, eta, era be-rean, beste zer egin zitekeen pentsatzea. Hainbat artistarekin hitz egin zuen Foru Aldundiak, eta haiek garbi ikusi zuten azken urteetako joera batzuk alboratu eta oso bestelako eredu baten alde egin behar zela.

Zeintzuk ziren alboratu beharreko joera horiek?

Artelekuren sorreran oso tailer luzeak egiten ziren. Azkenaldian, berriz, gero eta laburragoak: bi egunekoak, astebe-



DANI BLANCO

tekoak... Artista horiek Foru Aldundiari esan zioten berriro eredu luzeago batera jo beharra zegoela, eta hor sortu zen Kalostra izango zenaren hazia. Lehiaketarako publiko bat jarri zuten martxan, eta proiektu bat aurkeztu nuen nik, eredu luzeago hori nondik nora joan zitekeen biltzen zuena. Ez zen denbora kontua bakarrik, ordea. Bazen guretzat kontu garrantzitsu bat: ez genuen ikusgarritasuna bilatu nahi. Besterik da lan baten ostean edo kurtso amaieran egindakoa publikoari zabaltzea. Baina lan prozesuan zehar ez genuen inoiz argazki-

rik sareratzen, “hemen ari dira artista gazteak lanean” eta gisako mezuekin. Bestalde, egia da eraikinak ere –Alde Zaharreko Santa Teresa komentua– horretara bideratzen gintuela. Arteleku irekia zen, industrial, espazio zabalekoa. Hau, aldiz, askoz txikiagoa, espazio itxikoa, bestelako arkitektura batekoa... eta horrek proiektuan eragina izan zuen. Azkenean, sortu genuen norbere baitara bilduta egoteko espazio bat, erlijio hizkeran esateko. Izena ere –‘Kalostra’, klaustroari erreferentzia eginez–, hortik dator.

“Alderdien arteko borroka hor dago: proiektu bat Bilduk martxan jarritakoa bada, hurrena datorrenak geldiarazi egiten du”

“Testuinguru zailean jaio zen proiektua. Askorentzat Arteleku itxi zutenak izan ginen; beste batzuentzat modu opakuan –Itxasok hitz horixe erabili zuen– lan egiten zuten xelebre batzuk”

“Azken urteetan mamu bat izan zen Tabakalera Artelekurentzat”

Kalostraren funtzionamendua zehazten aritu ziren arte munduan ibilbide oparoa duten hainbat lagun. Besteak beste, Adelina Moya, Peio Agirre eta Txomin Badiola. Haien ekarpena zertan gauzatu da Kalostran?

Kalostrara inor ez zetorren aurrez pentsatutako proiektu bat gauzatzera. Hori baino askoz irekiagoa zen proposamena. Izugarri sinplifikatuta: Artista izan nahi duzu? Sentitzen duzu artista izateko ondo etorriko zaizula zu bezala dauden beste hamalau lagunekin leku berean lanean aritzea, ibilbide bat dau-

katen artistek lagunduta? –Eta lagun-duta diot, “irakatsi” ez zaidalako asko gustatzen. Guretzat oinarrizkoa izan da, zentzu horretan, Jacques Rancièreren *Le Maître ignorant* liburua: denok ikasten dugu elkarrengandik, inor ez da inor baino gehiago: berdin lagunduko dizu artista kontsakratu horrek edo zure ki-deak. Kontua zen lan prozesu batean sartzea bete-betean–.

Horregatik epe luzeko kurtsoak berreskuratze beharra.

Hori da. Kezka hori bazetorren, besteak beste, unibertsitateak eduki duen ebolutiotik. Arte Ederretako ikasketetan lan egiteko baldintzak aldatuz joan dira: ikasketa planak laburtu egin dira, bost urteko karrera lauко bihurtu zen, laster ziur asko hirukoa izango da eta egin beharko duzu gradu-ondokoa edo dena delakoa... Finean, gertatzen da askoz ere denbora gutxiago daukazula zeure buruarekin bakarrik egoteko fakultatearen barruan, zeure txokoan, lanean. Pasatzen duzu denbora tarteka irakasleari lana erakutsiz, etxean lan pixka bat eginez... logika hori errotik puskatze asmoa zuen Kalostrak. Eguneroko martxa oso arrunta zen: artista bat gonbidatzen genuen astebeterako, berak egituratzen zuen aste hori, eta bitartean parte hartzaileak (nahiago dut hitz hori “ikasleak” baino) lanean ari ziren, eta artista gonbidatuak laguntzen zien, bere esperientziatik.

Kalostra aurkeztu zenuten Arte Ederretako ikasleentzat zerbait osagarria bezala, baina, era berean, artista guztiei irekia. Nola kudeatzen da aniztasun hori?

Zaila da ikasturte bakarretik ondorioak ateratzea. Kalostran izan diren hamabost lagunetatik gazteenak 22 urte inguru izango zituen eta zaharrenak 38. Jatorri desberdinetako jendea zegoen: suediarak, euskaldunak, espainiarrak, txiletar bat... Batzuk Arte Ederretatik atera berriak, beste batzuk fakultatea aspaldi samar zapaldu gabeak baina beren ikasketa prozesuan pauso bat eman nahi zutenak, beste intentsitate eta kontzentrazio batekin lan eginez. Eskatzen zitzaiena exijentea zen: etor zaitez Donostiara eta pasa hemen 7-8 hilabete egunero 8-10 orduz estudio batean itxita, zu bezala dauden beste hamalau kiderekin eta bisitan etorriko diren artistekin. Kontzentrazio eta



Xabier Gantzarain eta Ikerne Badiola (orduko Gipuzkoako Kultura diputatua) 2015ean, Kalostra aurkezteko egindako agerraldi batean. Ia hasi eta berehala amaitu da arte eskolaren ibilbidea, Gipuzkoako agintari berrien erabakiz.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

“Arte Ederretako ikasketak aldatuz joan dira: bost urteko karrera lauко bihurtu zen, laster ziur asko hirukoa izango da... askoz ere denbora gutxiago daukazu lan egiteko”

intentsitate hori lortzea egun ez da baxter erraza. Eta hala ere, jende askok eta askotarikoak eman zuen izena. Bagenekien arrisku handia zegoela norbaitek une batean *krak* egin eta kurtsoa uztekoa, baina ez zen gertatu. Harrigarria zitzaidan ikustea artistek buru esfortzu ikaragarria eskatzen zuten ariketak planteatzen zituztela eskoletan.

Pena ematen dit martxan ez jarraitzeak, ez dugulako ikusiko pedagogia horrek zenbat eman zezakeen. Baina ziur naiz Kalostran izan den jendeari hemendik 5-10 urtera oraindik balioko diola han ikasitakoak.

Halako eredu horizontal batean nolakoa zen lanen ebaluazioa?

Ez zegoen ez notarik, ez krediturik, ez antzekorik. Ebaluazioa bai, baina askoz ere pertsonalagoa. Astebeterako artista bat etortzen zenean, banan-banan joaten zen bakoitzaren estudioa beren lanaz hitz egitera, zertan ari ziren, zer asmorekin, zer zailtasun zituzten... jarraipen bat egitera. Intimitate horretan askoz gehiago ikasten du batek paper batean zenbaki bat jarrita baino. Artistek artistekin ikasteko leku bat izan da, bai. Ez dut uste *martzianada* bat denik: idazle batek norekin ikasten du? Normalean, batez ere, beste idazleekin. Musikari batek? Beste musikariekin. Oso gauza oinarrizkoa da.

lazko urri aldera, Gipuzkoako Foru Aldundi berriak Kalostra geldiaraztea erabaki zuen. Denis Itxaso kultur diputatuak arrazoitu zuenez, “Tabakalerak eta Kalostarak ezin dute bi irla banatu izan”. Hala al ziren?

Tranpa handi samarra egiten da Kalostra eta Tabakalera konparatuz. Ze arazo dago bi irla edukitzeko? Kontua da gauza desberdinak direla: bata arte eskola da, bere funtzionatzeko modu oso bereziarekin –baina, aldi berean, oso finkatuarekin–, eta bestea erakusteko leku bat da. Sortzeko ere bai, baina batez ere ikusgarritasun baten bila lan egiten duen toki bat. Irla bakoitzak bere zeregina ondo betetzen badu, zein da arazoa? Guk badakigu Kalostra ixteko erabakia hartuta zegoela gurekin hitz egin baino lehen. Gero nahi duzun apaingarria jarriko diozu horri, baina ez zuten proiektua ezagutu, zertan ari ginen ikusi, zenbat diru joaten zen aztertutako jarraitzeko zenbat diru beharko genukeen, eredu horrek beraientzat ere balio ote zuen... ez zen halako kalkulurik egin. Hori izan zen harrigarriena eta mingarriena.

Ez zenuten irudikatzen halakorik gerta zitekeenik?

Kezka beti dago. Oso testuinguru zailan jaio zen proiektua. Jende askorentzat Arteleku itxi zutenak izan ginen; beste batzuentzat, berriz, ezkutuan eta modu opakuan –Itxasok hitz horixe erabili zuen– lan egiten zuten xelebre batzuk. Hor badago kontu bat, zeharkakoa dirudiena, baina erabat lotuta dagoena honekin: arteak zertarako balio duen norberaren ustez. Itxasoren azken adierazpenak lerro artean irakurrita ulertzeko esaten zuela “Kalostrako hauek zertan ari ote dira, gauza xelebreak egiten, beren gauzetan, inork ez ditu ulertzen”, edo antzeko zerbait. Eta uste dut benetan auzia hor dagoela. Ondo iruditzen zaigu gauza batzuetan dirua gastatzea, baina gero hortik zer aterako den ez dugunean garbi ikusten, artista gazteei laguntzeko toki bat... zalantzak pizten dira. Oso kuriozosa da, artearekin bakarrik gertatzen da norbaitek galdetzea: “Baina hau artea al da?”. Ez da galdetzen ez musikarekin, ez literaturarekin, beste diziplina batzuetan ematen du onartuago daukagula ez dela gure

joko eremua eta ez daukagula epaiak emateko irizpiderik, edo ulertzen ez dugun guztia ez dugula zertan baztertu. Baina artean ez. 60ko hamarkadan arte garaikidean zebiltzanak oso bere sentitzen zituen herriak. Egun, ematen du artelan horiek ez dutela gurekin zerikusirik. Garaia sintoma bat da, ziur asko.

Zertan da Kalostra egun?

Aldundiaren babesik gabe ere proiektuarekin nola edo hala jarraitzea erabaki zuten artistek. Azken aldiz haiekin izan nintzenean oraindik gogoetan zebiltzan. Ez dakit berriro Kalostrarik izango den, baina esperientzia honek balio izango du noizbait antzeko zerbait martxan jartzeko. Azken batean, oso gauza logikoa da: inork ez badizu eskaintzen, eta artistentzat behar-beharrezkoa bada, ziur naiz nolabait egingo dela. Ez dakit ez noiz, ez nola, ez izen horrekin ala beste batekin, baina egingo da. Astebetean zaila da arrastoa utziko duen ezer sortzea. Artearen denbora, sortzearen denbora, beste denbora bat da. ■



EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:
 ARGIA ASTERO, HILEAN 12 € BAINO EZ.
 ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 7 € BAINO GUTXIAGO
 ARGIA HILERO, HILEAN 4 € BAINO GUTXIAGO

943 371545
 HARPIDE@ARGIA.EUS
 WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA






Zikloa

DOINUA:
OSKORRIREN "GOGORATUKO ZARA
HERRIKO JAİETAN".

Bertso Egunaren baitan,
goizean Zikloa gaitzat hartuta egin zen
saio berezian kantatutako bertsoak.



Rosi Lazkano



1. "Zaharrak berri" dion
haritik tiraka
gogoa berehala
doa pirrilaka
nahiz denboran txokoan
lotsan hautsak tapa
irripar bat sortzeko
ahalmena dauka.
Nahiz denboran txokoan
lotsan hautsak tapa
bizi-bizirik dago
a(d)itzen dut tik-taka.
2. Nire lehen ipuina
zen kristau dotrina
isilik egon behar
hizkuntz asko baina:
etxeokak euskaraz,
mezetan latina,
Santa Anako mojak
gaztelera fina...
etxeokak euskaraz,
mezetan latina,
eta nexkak eraman
behar mantelina*.
* mantilla edo mantilles
3. Txarolezko zapatak
galtzetin zuriak
neska txikiarentzat
momentu handiak.
Egun berezietan
janzteko jantziak
ahizpa zaharragon batzuk
aurrez erantziak.
Egun berezietan
janzteko jantziak
begiratuta garbi
neuzkan belarriak.
4. Astelehen goiza beste
denen desberdina
sukaldea betean
arropa zikina
goiz osoan burrunban
xaboi-ur-makina
lehenengo maindirea
gero galtza urdina.
Goiz osoan burrunban
xaboi-ur-makina
automatikoa zen
amaren ezina.
5. Nerabetzan ez katxi
eta ez zurito
nire beldur guztiak
izerditan ito
hanka punttetan dantzan
bi ordu ta piko
"abiapuntu txarra
ez zen", nirekiko
hanka punttetan dantzan
bi ordu ta piko
"faborez" baten hasi
ta lotu betiko.
6. Etixerako bidean
argitik ezkutu
lehen muxua, bueno...
ezpainak ikutu
barru(a)n dena algaraz
kanpo(a)n dena mutu
segundoa bihurtu
zitzaidan minutu.
Barru(a)n dena algaraz
kanpo(a)n dena mutu
bekatua zen baina
ez nintzen damutu.
7. Orain dirudigula
katu eta sagu
zulotxoan sartzeko
ez nabil hain malgu
oilo ipurdin jartzea
hori ez dut galdu
desio berriren bat
beti zait azaldu.
Oilo ipurdin jartzea
hori ez dut galdu
eta grano eta akne
itsusitik salbu.
8. Hazitarako inor
izango ez garenez
holako aukerei
ez diet orain "ez"
seguru segiko dut
tabarra emanez
gustatzen zaidan hura
gustura eginez
seguru segiko dut
tabarra emanez
lehen hanka punttetan
eta orain oinez.



Txistu jotzeei jarriak

DOINUA: KATAMALOREN "ASKOK IRUDIPENA DU".

Bertso Egunaren baitan, afalosteko saio berezian kantatutako bertsoak.

1 Unai Agirre:

*Txistuak izaten dira
bertsotan ta futbolean
lehoiak zirkuan eta
tximinoak arbolean.*

2 Jexux Mari Irazu:

*Lehen artzainen txistua
artalde biltzeko gai
ta orain ardiek txistu
geurea ez den artzaina(r)i.*

3 Iker Zubeldia:

*Artzainak txistu jo eta
ardiak lerro luzean
ez lira(te)ke ipiniko
ogirik eman ezean.*

4 Unai Agirre:

*Ta agurra izaten da
txistuen errematea
tripak jan ta dagokigu
eskerrik asko ematea.*

5 Jexux Mari Irazu:

*Txapeldun berria ere
halakoa zen jasata:
Txalo jotzen eztarritik
txisturik ezin pasata.*

6 Iker Zubeldia:

*Beñat arkume txikia
xuxen ari zen portatzen
honi otsoen ipuinik
ez al zioten kontatzen?*

7 Unai Agirre:

*Baina trantzerik txarrena
Xalbadorri zegokion
inork esan al dizue:
- Bai, nik txistu egin nion!*

8 Jexux Mari Irazu:

*Jauntxo ta anderetxoek ere
hartu nahi gaituzte estu
txistuak ta babesleak,
hobe bitatik babestu.*

9 Iker Zubeldia:

*Txistu batzuk joagatik
ez dugu ba elkar jango!
Bota izan balituzte
ez zen hobea izango!*

Udazkenean, erortzeaz

DOINUA:
TRUMOIA ORTZI BELTZEAN OSKA.

Bertso Egunaren baitan,
goizean Zikloa gaitzat hartuta egin zen
saio berezian kantatutako bertsoak.



Nerea Elustondo

*Egutegien patologia:
aro bakoitzak hemorragia
maiteminduen zoriona ta
maiteminen nostalgia.
Ehiztarien danbatekoak
ta gaztainen energia
udazkenak zer magia!
Tamalez jende gehiegik die
akaroiei alergia.*

*Ongi-etorri ta despedida
gure bizitza juxtu hori da
nahiz eta kasu hontan bera den
biktima ta homizida.
Usoa zela uste-ta joan
nahi zuena urrutira
hasi denean batida
hegoan tiro egin diote
eta punba erori da.*

*Bigunagoa zela uste-ta
lurraren kontra a zer galleta!
Aspaldi gehitxo urrundu ditu
paparra eta kopeta
Nahiz badakien hori ez dela
hurbiltzeko errezeta
gela ilun baten gordeta
arnasik ia ezin du hartu
eta hor dabil puzkerka.*

*Nor ez da egon bizi-zikloan
nora ezean erdi itoan?
Ta zutitzeko indarra bildu
ohi denez erorikoan
nahiz maiz zaila den argia ikusten
bizitzan labirintoan
zentzu metaforikoan
badaezpada beti eraman
linterna bat poltsikoan.*

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Leiala



Igor Estankona



Mundua betetzen zenuten

TERE IRASTORTZA

Poesia. Pamiela, 2015

Poesia idazteko modu jakin bati leial zaio, *Ga-beziak* (1980) eta ondoren etorri diren beste hamar liburuetan ageri denez. Tere Irastortza idazle atipikoa da, poesia klasikoa ateratzen zaio dolutik, ez daki idazten modu lauan. Edo agian laua dirudi bere lirikak, baina prosa ere ez da. Horregatik, ipuinetan legez, liburu honetan ere aurrera eta aurrera animatzen zaitu beti, jakin arren ez zarela iritsiko hasierako puntura baino. Bidaia, ordea, lagundu egingo dizu ideiak ordenatzen eta oinaze bat unibertsa konpartitzen: joan direnena guri hemen utzita, denbora guzti honekin aurretik.

Gustatu zait *Mundua betetzen zenuten* (Pamiela, 2015), poesia mota hau gustatzen zaidalako, eta inbidia diedalako kapaz direnei ezinezko maitasunetatik ateratzeko maitasun posibleak: “Sekula irudikatu gabeko zenbat gauza/ egin dugun elkar gozatuz,/ (...) elkarrekin oheratu gintezkeela/ gauero eta esnatu goizean,/ elkarrekin tolesta genezakeela lixatutako arropa,/ eta irudikatutako zenbat segundo bizi izan dugun,/ orain irudikatuta ere atrapa ezin izango direnak/ sekula”. Liburua gozamina da erritmo aldetik, *festina lente* doa, eta ezusteko esapideak ditu, jolas egiten du hizkuntzaren mikaztasunarekin. Zehatza du mintzoa baina loreak daude nonahi: “eta geroa irakinaraziz lurrinzen den sukaldeetan/ arnasarik eza aditzen da pasa-ezinka”.

Anekdotaren aldean nahiago du Tere Irastortzak hitz egin sakontasunez. Eta azalekoaren aldean *Mundua betetzen zenuten* gai lodien inguruko saiakera poetiko arin bihurtu du: amodioa, denbora, heriotza dakartza. Denak datoz bitalismo eskergarri batean bildurik.

Eta nahasten zaizkio hainbeste penaren artean izan zena, ezin izan zena izan, eta eternitatea bera. Lurretik zerura eta atzera ere lurrera datorren guztia iruditzen zaio ulertezin baina era berean bizigarri. Dena bukatuko da, noski. Bitartean eginikoari kantatzen dio, oster, orrialderik orrialde. Izan gizakiaz ari denean, izan Karmele Igar-tuaren (1959-2010) gaixotasunaz, etengabe harritzen nau nola hitz egiten duen idaz-leak mugarik ez balitz bezala, denborarik ez balitz bezala, bakoitzak bere patua asmatu ahalko balu legez: “Izan ezinean egon nahi izan dut,/ eta nago”. Liburu honek frogatzen du, funtsean, edertasuna antzaldatu egiten duela usteltzeak, eta amaiera izan daitekeela berriro haste bat, edo depresioa ikasbide latzena. Buelta ematen die Irastortzak konbentzioei, eta poemen eitea bada ere ia beti bat eta ia beti ortodoxoa, azpitik dakarren esanahia da bizitzaren mugimenduarena, dantzatu behar den mambo horrena: “geu ginel (...) / eskua emanda salto egiten asmatu zuten/ bi neskatzak”. ■

Tere Irastortza,
liburuaren
aurkezpen
egunean,
Ibon Sarasola
lagun.



» TELEGRAMA

Iruñeko **Ikuspuntu** zinema dokumentaleko nazioarteko jaialdia otsailaren 8an hasi zen eta 14an bukatuko da. Besteak beste, José Luis Guerin zuzendariaren azken lana ikusteko aukera **STOP Ardoa eta odola** ikuskizuna Bilboko Kafe Antzokira iritsiko da otsailaren 11n: Hala Bedi irratiko **Celosamente Gordea** saiotik abiatutako ekimenari Napoka Iria eta Joseba B. Lenoir batu zaizkio **STOP 40** urte agertokietan, erraz esaten da: **UK Subs** punk talde historikoa Gasteizera iritsiko da otsailaren 13an. Hell Doradon da zita, TV Smith & The Bored Teenagers taldearekin batera **STOP**

» DISKOA

Tori danbateko garaikidea!



Iker Barandiaran



Latigo
SONIC TRASH
Brixton Rds, 2015

Banekien Sonic Trash taldearen oinarria milurtekoaren hasieran Bilbon sortutako Ya Te Digo taldetik zetorrela, baina izen hark –Ya Te Digo– interes puntua ezabatu zidan eta ez nien jaramonik egin. Gerora jakin nuen 2000an, maketa bakarra zutela, Bilbo Hiria lehiaketa ospetsuan euskal talde onenaren saria eskuratu zutela. Hiru disko luze (*Uruhue*–2001, *Kill switch*–2005 eta *Trash tango*–2008) eta hainbat lan txikiago kaleratu, eta bereziki Bizkaian kontzertu ugari egin zituzten, betiere soinu-distortsio paretak eraiki, gitarra eta erritmo gogor zein barnerakoiak landuz eta Daviden ahotsari esker ukitu bereizgarriagoa –indieagoa?– emanaz.

Horren atzetik Sonic Trash taldea etorri zen Ya Te Digo lurperatu eta entzuleari zaplazteko handiagoa emateko helburua zuena. Eta, bide batez, bestelako musika zaleen arreta ere piztu zuen. 2011n *Hey chica* lan luzea kaleratu eta taldeak indartuta zegoela erakutsi zuen. Gainera, bueltan zen hastapenetako Mariana bateria jotzailea ere.

Sonic Trasheko taldekideak musika zale amorratuak dira, eroak ia, eta hori nabaria da beraien diskoetan. Izan ere, ezinezkoa da egiten dutenari izena jarzea, hain da irekia, erraietako, garaikidea, iluna, itsaskorra eta aldi berean bortitza. Hala ere, taldearen azken lan itzela, *Latigo* seguruenik oharkabean pasako da!

Diskoa zabaltzen duen *El baile del cocodrilo*ren danbatekoak lurrera botako zaitu: arnasa kentzen duten bateria kolpeak, blues zikin azkarra, misterio-tsua eta iluna, erabat rockeroa. *El caminante*, berriz, post-rocka da, distortsio, tarte xuxurlatu eta koro borobilak dituen. *Santo Tomas* abesti osatuena da, borobila: aspaldi entzun dudana power-pop pieza irmoena. Uauuu! *Zamudio boogie* punketik, metaletik eta Jon Spencer Blues Explosionetik edaten du. *Agonia* espaziala eta arraroa da, intriga handikoa. *Bang* bihotz handiko rock gogorra pop eta garagearekin bat eginda. *Latigo* gaztelaniazko high-energia, ukituz gero erretzen duena. *Reinas* high-energy, gitarra makur eta punk-rockarekin egindako entsalada. *Amodio* post-hardcore, free askea eta pop-rockaren ezkontza. Eta, azkenik, *Venganza*, techno industrialaren eremuetara axolagabeki hurbiltzen den pieza rockero oso-oso iluna.

Kristoren aurkikuntza da taldea, erabatekoa. Indartsua da oso, zapalgailu hutsa, gitarrak muturreraino okertu, erritmo sakon eta pisutsuak landu, post-rock giro ilunagoetatik rock egiazkoenera bueltatu eta zuku handiena ateratzen diona. Eta horren guztiaren gainetik –edo alboan– ia kontraste gisa xuxurlatzetik, iradokitzetik edo oihukatzetik erregistro sarkorrak hartzen dituen Daviden ahotsa eta hitz erdi kriptikoak. ■



Fikzioak gorpuzten

MAHAI-INGURUA

Otsailaren 5a. Literatura eta feminismoa lotzen dituen Sareinak taldeak antolatutako mahai-ingurua Astra gaztetxean (Gernika-Lumo). *Fikzioak gorpuzten* izenburupean Leire Bilbao eta Irati Jimenez idazleak hizlari.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Virginia Woolfen esaldi ezagunari tiraka hasi ziren bi idazleak: “Emakumeak fikzioa idazteko dirua eta beretzako gela bat behar ditu”. Beretzako zuen gelaz gain, izebaren herentziak ere garrantzia izango zuela azpimarratu zuen Leire Bilbaok. Lehenengo autonomia ekonomikoa, eta hortik aurrera geratzen zaizun soberako denbora literaturarako. Irati Jimenezek Woolfen gela bi elementutan xehatu du, batetik idazteko denbora, orduak, eta bestetik, norberaren barruan eraiki behar diren sostenguak kanpotik datorrenari eusteko, besteak beste kritikei. “Ez gara literaturaz bizi, literaturarekin baizik”, esango du.

Jolasean bata...

Jolasteko gogoz idazten du Jimenezek. Ezeren gainetik mozorrotzea eta trabestitzea du gustuko. Galdetu baitzaio minetik aritzen ote den idazten duenean (adibidez, *Atsekabe zaitut* lanean), eta ezetz, “jendeak uste du zerbait dramatiko idazten duzunean, pertsonaia baten heriotza kontatu duzunean, minetik ari zarela, eta nik ez dut hala egiten”. Gezurra da, alegia, jolasa da.

... feminismoaz hausnartzen bestea

Bilbaori idazteak feminismoaz hausnartzeko balio izan dio, feminismoa nola bizi duen gogoeta egiteko. Gorputza, hilekoa... izan ditu gai bere poesian. Orain, poesia amatasunaz hausnartzeko erabili nahiko luke.



SAREINAK

Euskal literaturaren egoeraz galdetu eta...

Blokeoa, paralisia... Bi idazleak ados. Jimenezek idazleak blokeatuta daudela dio, autokontzientzia handiz ari direla lanean, iritziaren sukarrean bizi gara eta denaz eman behar dutela iritzia, “blokeatu egin gara”. Gehiegizko autokritika azaltzeko aitzoren metafora erabili du. Gauza bat da norberari zorrotz begiratzea eta beste bat indar gehiegiz aritzea. Hala eginez gero, “ez dizu koipea soilik kenduko, giharra, eta azkenean hezurra ere bai”.

Bilbaok esperimentazioan nagituta daudela uste du, funanbulista izaten jarraitu nahi du, “ez naiz literaturaz bizi eta ez badut gozatuko...”. Herdoilduta nabari ditu idazleak hizkuntzaren erabileran, “ez dadila hain batua, jaso, izan”; gaien erabileran; eta adibidez, eleberri baten egituraketan.

Hizkuntzaren hertsia haur garaiko jolasen bidez adierazi du Jimenezek. Barbie, *txotxona* panpina eta beste hainbatekin egiten zuen jolas, nahasean eta haien hasierako funtzioak baztertuta. Tresnak (jolasak) apurtzeko beldurrez sumatu ditu idazleak, euskararekin adibidez jolatu behar dela aldarrikatzen du, hala gabiltza: “kontuz..., ez ukitu..., hau horrela da... Ezin dugu liburua zuzentzaileen esku utzi”.

Jorge Jimenez idazlea sartu da elkarrizketan, blokeoaz eta paralisiaz hizketan. Eta dio etorri direla gazteak, emakume gazteak, baina literatur sistemak berriz lehengoak aupatu dituela, “ni baino zaharragoak, eta bada esatea”. Bilbaok erantzun dio baietz, tropela sakrifikatu dutela. Irati Jimenezek ustez, “nire belauldiak

esango du leku erdi arraroan gaudela, ez ditugu gazteak ikusten apurtzen, fanzi-neak ateratzen adibidez. Jostailuak hor daude baina ez dira inorenak”.

Fikzioak gorpuzten

Sareinak taldeko Josune Muñoz kritikari feministak esan du pozgarria dela bai Bilbaok bai Jimenezek fikzioak literaturan gorpuzteko egindako ahalegina, euskal literaturan horrelako gutxi egin baita. Bilbaok emakumearen gorputzaz, ernalkuntzarako gorputza zertan izan ez duen gorputzaz, hitz egin du bere poesian. Lehen esan bezala, orain amatasuna gorpuztea du intereseko. Eta airtortu du amatasunari buruzko estatistika eta teoriak baino gehiago balio diela amatasunaz ari den literaturak. Jimenezek emakumeen eta gizonen gorputzeak aipatu ditu, emozioak, amatasuna bezala aitatasuna, zaurgarritasuna... Bilbaok eskaera bat du gizonentzat, “egin dezatela gizonkeriatik baino gizontasunetik hitz egiten duen literatura”. ■




Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailtarako

Otadui Gotzaina, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)
☎ 943 783 447 / 617 442 466
www.tanatorio-gipuzcoa.com

Egilea: Ana Zambrano

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:



1. Bakoitzak bost. Hegaztiek hegan egiteko dituzten organoetako bakoitza. 2. Helburua, xedea. Gezi txiki. 3. Hebrearren hizkuntza. 4. Alai, irribarretsu. 5. Donostiako mendia. Oskigile. 6. Bizkaiko udalerria. Bedeinkatu. 7. Jatorriz japoniarra den borroka-kirola. Loraketa, loraldi. 8. Guztiei dagokiona. Altxatzen.

Goitik behera:

1. Ale, garau. Ukamen. 2. Zalantza partikula. Nafarroako herria. 3. Gabon eguna. 4. Akatsak. 5. Abagune, aukera. Modu atzizkia. 6. Oihu, hots. Bakarrik. 7. Harrera. 8. Esanarazi. 9. Gadolinioaren sinboloa. **Argazkian**. 10. Bokal errepikatua. Konforme. 11. Su-arma batek jaurtigaia aurtikitzea. 12. Akats, narrio (alderantziz). 13. Sodio kloruroa. 14. Iltze. 15. Neukan.

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

Narrasti pozoitsua

24 ordu

Bakoitzari ehun

Ugaztun sarraskijale

Keinada

Egoera estua

Frikun, bihurri

Jakina

Musika tresnaren hots

Ona, ontasunez betea

Lapurtua, ebatsia

Ohean etzan, oheratu

Akatsa

SUGEA

HUTSA

Sudokua

Erraza

	5	9			6	8		
				7	5	9	3	6
6	2			9		7	5	4
		6		4				
1				8				3
				6		2		
3	9	2		5			7	1
5	6	4	7	1				
		1	6			4	9	

Zaila

	3				8			
			2	7		5		
6	8						9	1
1					2		5	
	2						7	
	7		5					2
3	1						2	4
		6		8	4			
			9				6	

Soluzioak

"Galdun den tokira joan behar da bila."

ESAEARA ZAHARRA

ANAGRAMAK
SUGEA
EGUNA
EHUNA
HIEA
KEINA
KINKA
KOKIN
KONSKI
SOINU
ONTSU
OSTUA
UHOAT
UHUTSA

ANAGRAMAK

14. Itze, 15. Nuen.

9. Gd. Upela. 10. Ooo, Ados. 11. Tiro. 12. Akat. 13. Gatz.
4. Nartioak. 5. Era. 7o. 6. Del. Ber. 7. Hartzea. 8. Ertasan
Gothik beheara: 1. Ihin. 2. Ore. Ugar. 3. Subilaro.
Benedikta. 7. Karate. 8. Lorazte. 8. Orokor. Jasozten.
Eskere-estum: 1. Bosna. Hego. 2. Itua. Ubarro.
3. Hebreara. 4. Imitsu. 5. Ullia. Zapagaiten. 6. Ugaio.

Jesus Ahedo. Arte galerista



Blues musikak eraman zuen Jesus Ahedo Afrikara, eta han ezagututako artearen lilurak Bilboko Kalao galeria sortzera. Oraintsu hamar urte bete ditu arte afrikar garaikidean berezitutako Euskal Herriko areto bakarrak. Arte afrikarra gutxietsita dagoela salatzen du Ahedok, aukera duenean. Hala ere, gutxiespen horri “esker”, kontinenteko lehen lerroko artistak ikus ditzakegu bertan, eta haien lanak askoz eskuragarriagoak zaizkigu.

“Gaur egun kolonialismoa askoz itogarriagoa da Afrikan”



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: IÑIGO AZKONA

Arteak ez du dirurik emanen

“Bilboko Arbolantxa kalean daukat Kalao arte galeria, Albia inguruan, atzeko aldean tailerrak daude. Artearekiko maitasunagatik ari naiz; galeriak ez du dirurik ematen, eta asteburuetan tabernari nabil Kubil tabernan, Iturribide kalean. Kale heavy eta kalimotxero horretan jazz entzun, formatu txikiko zuzenekoak ikusi eta arte afrikarra ikus dezakegun taberna bakarra da Kubil”.

Nola sortu zitzaizun arte afikarrarenganako kezka?

1992an hezkuntza zientzietan lizentziatu ostean hasi zitzaidan arteagatikoko kezka, gizakiak munduan uzten duen adierazpen gorenarengana. Blues talde batean jotzen nuen eta 2004an Malirara egin nuen bidaia, bluesaren iturrien bila. Bidaia iniziatikoa izan zen, lau hilabetez lau herrialdetan ibilita, eta lagun handiak egin nituen, galeriaren egungo oihartzunean eragin dutenak.

Hamar urteotan goien mailako artistak ekarri dituzu galeria txiki honetara.

Ndary Lo, George Llilanga, Cheri Cherin, Camara Guèye... Artista handiak dira, baina nire proposamen apala estimatu dute. Normalki uste izaten dute Bilbon interes handia egongo dela baina gero atsekabea hartzen dute benetako egoeraz jabetzean.

Gutxietsita dago afrikar artea beraz, maila horietan ere.

Bai, presentzia irrigarria du artearen nazioarteko topaketetan. Hori aldatzen

ari da pixkanaka, baina “Lehenengo mailako artea” finantza botereek kontrolatua da egun, hor ez dute agintzen irizpide artistiko edo estetikoek. Dirua zuritzeko modurik onena da artea.

Nola begiratzen diogu Afrikari hemen-dik?

Kolonialismoaren begiradarekin begiratu zaio beti Europatik. Berlingo konferentziatik aurrera, ia ehun urteko kolonialismo ofiziala izan zen Afrikan. Europako sistema kolonialistak misio zibilizatzailea zuela zioen. Frantziak interesa izan zuen sistema horretan, horregatik du Afrikak presentzia handia Frantziako hirietan. Espainiak, aldiz, Ginea eta Sahara probintziatzen hartzetik korrika alde egitera pasatu zen. Manuel Iradierrek Ekuatore Ginea lortu zuen Espainiarentzat baina hark ez zuen inoiz interes handirik erakutsi Afrikarekiko, arpilatzetik harago.

Baina garai bateko ikuspegia da.

Egundaino Belgikak bakarrik onartu du Afrikan genozidioa egin zutela. Leopoldo erregeak bere Stanley mertzenarioaren bidez egindako sarraskia eta belgikarrak engainatu zituela aitortu dute ofizialki.



"Ez dugu Afrikarekin berdintasunezko harremanik izango barkamena eskatzen ez diegun bitartean".

Euskaldunak ere ez gaude garbi.

Gaia ezkutatu da, ikertu beharko litzateke euskal portuek esklaboaren negozioan izan zuten rola. Espainia izan zen Europako azken herrialde esklabista, eta Kuba Amerikako azkena. Horregatik ekarri zuen 1877an Sopuertako Castaño Capetillo familiak Rafael Padilla *Chocolat*, Kuban esklabo erosita zortzi urte zituela. Historia bitxia da *Chocolat*-ena: Tony Grice ingelesak ezagutu zuen Bilbon, eta Londresera eta gero Parisera eraman zuen. Montmartren arrakasta handia izan zuen Fottit pailazoarekin bikotea osatuta. Lumière anaien hainbat filmetan agertu ziren, baina gero *Chocolat*-en ospea itzaltzen joan zen.

Artea baina, artisautza omen da hangoa.

Gizarteak Afrika zer den ez badaki, haren historiaren eta gorabehera sozio-politikoaren berri ez badu, hezkuntzan aipatzen ez bada... Noski, ikusmolde horren ondorioa da. Exotismoa da beste ikuspegi kaltegarri bat. Afrikari buruz egiten diren filmetan beti leku exotiko, eder, folklorikoa... Ikuspegi paternalista dago, afrikarrak beren kabuz aritzeko

gai ez direlako irudia, heldugabeak dira, bortitzak... eta beti joan behar izaten da gizon zuria euren arazoak konpontzera. Ideia hori garai batean kolonizazioak erabili zuen eta egun post-kolonizazioa babesteko erabiltzen da.

Jarraitzen du presentzia kolonialak, beraz?

Itxura afrikarra hartu du menperatze horrek egun: ustezko agintariak afrikarrak omen dira, baina herrialde guztietan gobernuak multinazionalen txotxongilok dia. Gaur egun kolonialismoa askoz ere itogarriagoa da, euren baliabideak kudeatzerik ez dute afrikarrek.

Kooperazioak zerbait konpontzen du?

Txatalak dira, ez dut juzgatuko, badaikit badirela dena ematen duten GKEak, medikuak eta abar, baina beste batzuk ez dira gizaldeko lanerako eredu, darmaten bizimoduagatik eta jarreragatik.

Nola lagundu behar da orduan?

Kultura sustatuz autoestimua landu behar da Afrikan. Hiru mende nola sufritu duten kontuan hartuta, Afrikako

jenderik onenak bahitu eta Amerikara eraman baitzituzten europarrek. Independentziazatik hona igaro diren urte guztietan gure mailan garatuko direnik ezin dugu pentsatu, askok identitatea ere galdu baitute.

Etorkizun beltza, orduan?

Optimista naiz, uste dut Afrikan datozen 40 edo 60 urteetan gizateriaren hainbat mugarri ezarriko direla, sekulako indarra dago hor. Hala ere, ez ditugu berdintasunezko harremanak izango Afrikarekin barkamena eskatu eta elkar errespetatzen hasten ez garen bitartean.

"Beltza" hitzak duen adiera negatiboa...

Bai, baina historia beltz ezezaguna dago ezkutatuta. Esaterako, bada flamenkoaren *palo* guztiak afrika beltzetik datozela dioen teoria bat, Antonio eta David Hurtadorena. Horien arabera, samba, conga, tango... yoruba hitzak dira. Bestalde, 1100. urte inguruan Espainiako populazioaren %10 inguru Sahara azpikoa zela diote. Garai hartan sortu zen, kasurako, Sevillako *Los Negritos* kofradia, eta beltzak ziren kideak. ■




Gasteizko neskek anti-tetatina txertoa jarriko dute

Tetatina izeneko gaitza (neskei pegatiak jartzeko aitzakian titia ukitzea) gaitz oso zabaldua da Gasteizen, bereziki jaietan. Gaixotasunari aurre egiteko txertoa aurkitu dutela jakinarazi dute hiriko emakumeek: anti-tetatina. Aipatutako txertoa, gaixotasuna sendatzeko ariketa sinple bezain eraginkorra da: pegatina jarri nahian hurbiltzen den mutilari bi hanken artean zintzilik dauzkan masa bigunetan kolpe lehor eta zuzen bat ematea. "Txertoa eraginkorra izateko, komeni da 'krak!' entzun arte ariketa errepikatzea. Ez kezkatu tetatinarekin datorrenaren galtzak odolez zikintzen badira, anti-tetatina funtzionatzen ari den seinale argiena hori da hain zuzen", azaldu dute botika aurkitu duten zientzialariek. Beste herri eta hirietan zabalduta dauden gaixotasun kutsakorren kontra ere erabili ahal izango da, hala nola, babositisaren eta piropismolerdekariaren kontra.



SAREAN ARRANTZATUA

Deus ex matxina



Gora Pander-Eta!



Inbidia zikinak jota, alderdi guztiek Angelak ekarriko dituzte Euskal Herrira

Angela Davis Euskal Herrira bisitan ekarriz ezker abertzaleak lortutako arrakasta ikusita, gainerako indar politikoak ere hasi dira jeloskor-jeloskor antzekoak prestatzen. Euskal jendartearen benetako liderrak egin du noski lehenengo urratsa, EAJk alegia: "Ze emakumeen askapen eta zer arraio!", adierazi du jenio biziz Aberkoi Bedialauneta jeltzaleen nazioarteko harreman arduradunak, "emakumeak aspaldi daude ahaldunduta, gizonen pare edo okerrago, eta guk ekarriko dugun gonbidatua da adibide onena: Angela Channing". PP, berriz, Angela Merkelekin harremanean jarri da, eta Podemos Angelina Jolie ekartzen saiatuko da, zurrumurruek diotenez.



ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
| HERRIEN MUNDUA
INGURUMENA
EUSKALTZALETASUNA
ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
SEXU ASKAPENA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



ARGIA kazetaritza konprometitua egiteko erabiltzen ditugun baloreen arabera interpretatzen dugu Euskal Herriko errealitatea, baita munduko gainerako herrietakoa ere. Internazionalismoa eta nazioarteko elkartasuna lantzen dituzten EHko taldeak dira gure iturri nagusiak. Urrunekoaren berri emateko ere errora jotzen saiatzen gara eta, hala, hainbat hedabide independenterekin elkarlana bultzatu dugu. Jatorrizko herriak, kultura minorizatuak eta Estaturik gabeko herriak ditugu bidaide.

OTSAILEKO ZOZKETAK



Munduko Jolasak
(5 jolas)

Txatxilipurdi elkarteak
www.txatxilipurdi.com



Euskararen berreskurapena
(3 bilduma)

Garabide elkarteak
www.garabide.eus



Askapenako materiala
(3 saski)

Erakunde internazionalista
www.askapena.org



Europako Herrien Mapa
(3 mapa)

ARGIA
www.argia.eus/denda

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545
gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

1966 | GAUR KONSTELAZIOAK | 2016

Gaur Taldea eta Barandiaran Galeria | Kairós garaikidea



GAUR

BASTERRETXEA | ZUMETA | BALERDI | MENDIBURU
AMABLE | OTEIZA | SISTIAGA | CHILLIDA

KAIRÓS

BADIOLA | FAJFRIC | GOLDSCHMIED & CHIARI |
JAIO + VAN GORKUM | PSJM | ORTIZ | SALA | VIEITES

ERAKUSKETA

2016-1-23 / 2016-5-15

#GaurKonstelazioak

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga plaza 1, Donostia / San Sebastián
www.santelmomuseoa.com | @santelmomuseo

ANTOLATZAILEAK:

STM
San Telmo Museoa



donostiakultura.com



BABESTEN DU :



PATRONO PRIBATUAK:



EL DIARIO VASCO



ERAKUNDE BABESLEAK :



ENPRESA ONGILEAK :



berria

naiz:

